BEGIRADA AUSARTAK

Gay eta Lesbianen bizitza eta
maitasun kontaketak Frankismoan
eta Trantsizioan Euskal Herrian

lekukotasun berriak.1

Orain urte bete BEGIRADA AUSARTAK izeneko liburua aurkeztu genuen. Bertan, Frankismoa eta diktadura osteko lehen urteetan Euskal Herriko gay eta lesbianek bizi izandakoaren lekukotasunak bildu genituen, bai eta garai latz horren inguruan egindako azalpena eta azterketa ere. Orduan esan genuen bezala egindako lana amaitu gabe zegoen.

Lekukotasunak biltzen beranduegi hasi ginela aitortu genuen, ordurako garai haiek bizi izan zituzten asko eta asko hilda baitzeuden. Hala ere, badira oraindik une latz haiek bizi izan zituzten emakume eta gizonak, eta uste dugu haien lekukotasunak interegarriak ez ezik, baliagarriak izango zaizkiela gaur egungo gay eta lesbiana gazteei.

Oraingo honetan garai haiei buruzko zazpi lekukotasun berri dakarkizuegu eta bilketarekin segitzeko asmoa dugula berresten dizuegu.

Zorionez, iaz baino emakume gehiagoren oroitzapenak jaso ahal izan ditugu oraingoan. Eskerrak hortaz, bizi izandakoak pazientzia handiz gogora ekarri eta eskaini dizkiguten emakume eta gizon guztiei. Eta eskerrak, berriro ere, ahalegin honetan bide lagun izan ditugun erakunde publikoetako arduradunei.

2015ko Abenduak

Egileak: **Inmaculada Mujika**
José Ignacio Sanchez
Iñigo Bilbao
Amparo Villar

Jatorrizko asmoa: **ALDARTE** eta **EHGAM**

Laguntzaileak: **Bizkaiko Foru Aldundia** eta **Eusko Jaurlaritza**

Argitalpen hau nahi duenak, nahi bezala kopiatu, banatu eta erabali ahal izango du, egileen izenak aipatzen baditu eta ez badu erabilpena dirua egiteko baliatzen. Ezin izango da lan hau aldatu edo moldatu, ez eta beste idatzi bat sortu ere hemen dagoena oinarri hartuta.

AURKIBIDEA

Lekukotasun berriak **4**

Aloña 5

Helena 12

Josu 21

Isabel 28

Toño 34

Nekane 42

Miguel 50

LEKUKOTASUN BERRIAK

ALOÑA

- **Frankismoan dena ez zen txarra izan; emakume asko ezagutu, haiekin bizi eta borrokatzeko aukera izan genuen**

Ni Aloña naiz, laister 60 urte beteko ditut eta Bilbo ondoko herri txiki batekoa naiz. Herrikoa beraz, horrek suposatzen dituen gauza on eta txar guztiekin. 15 urtekin eta artean oraindik Bilbon ikasten ari nintzela, lantegi batean hasi nintzen beharrean. Langile guztiak emakumezkoak ginen. Gogoan dut lantegian begiradak baliatzen genituela elkar ezagutzeko. Ez dut esango une hartan jakin banekienik emakume haien begiradek benetan zer adierazi nahi zuten, edo zergatik izan ziren emakume haiek nire lagun eta ez besteak; baina denborarekin jakin nuen begi haien atzean ziren emakume guztiak lesbianak zirela. Gure arteko behakoak berdinen artekoak ziren. Ulertzen ez zuten emakumeekin guztiz bestelako harremana izan nuen eta beste modu batez begiratzen genion elkarri. Haien begietan ez zegoen txinpartarik. Begiekin ni bezalakoak bilatzen eta aurkitzen nituen. Berriro diot, horrekin guztiarekin ez dut esan nahi begiradak berariazkoak zirenik, baina bai denborarekin ohartu nintzela behako haiek guztiek bazutela zentzurik eta guztiak ginela emakume lesbianak.

Nahita be, ezingo nituzke behako haiek zehaztu edo definitu. Esan dezakedan bakarra da konplizitate handikoak zirela eta, gutxienez niri, egundoko segurtasuna ematen zidatela. Eta elkarri begiratu izanak ez zuen esan nahi, halebeharrez, lagunak izango ginenik edo kuadrilakoak. Garai hartan halakorik amestea be, alferrikakoa zen. Nire kuadrilak, esaterako, ez zuen zerikusirik nire barne gogo haiekin. Baina lantegiko giro hartan gogoak baretzen nituen. Gure artean ez genuen berbarik egingo, baina adostu bako elkartasuna egon bazegoen gure artean, egin genuen lehen lanuztean garbi geratuko zen moduan.

Neuk 15 urte banituen ordurako eta emakume lesbianak izan bazirenik be ez nekien. Nire baitako duda-mudak ezagun nituen. Hortik aurrera, kitto. Ezin dut ahaztu eskolara etorri zitzaigun azken maistra. Ikastetxean neskak eta mutilak alkarregaz geunden ordurako, gero eta ikasle gutxiago zegoelako herrian. Emakume hura Magisteritza Eskolatik atera berria zen eta bion artean lotura berezi-berezia sortu zen. Niri hala iruditzen zitzaidan, behinik behin. Oraindik be badugu loturarik, gure artean ezer gertatu ez zen arren. Ez dakit zergatik izan zen, hura gaztea zelako gainerako maistren ondoan, neu eskola bukatzear nengoelako edo zergatik… Ez dut esango emakume hartaz maiteminduta egon nintzenik, bai gure artekoa oso-oso berezia izan zela baina.

Lantegiko giroaz be, zer esan? Ezin dugu ahaztu gure herri honetan itxurak ez direla fidagarriegiak izaten. Badira gurean emakume asko eta asko daramaten itxurari edo darabilten portaerari erreparatuz gero, munduko beste edozein tokitan lesbianatzat hartuko lituzketenak. Euskal Herrian baina, horrek ez du ezer esan nahi. Ez halabeharrez. Itxuraz besterik ematen duten arren, gehienek ez dute ulertzen eta ez dira lesbianak.

Bartzelonan maitemindu nintzen lehenengoz

Garai haietan, 70. hamarkadan, ikasi, kasik ez nuen ikasten. Lan egiten nuenez, lantegitik ateratakoan nahiago izaten nuen herriko koadrilarekin ibili ikasi baino. Lantokian nenbilela *Burgosko Auzia* izan zen eta Bilbon egindako protestaldietan parte hartu nuen gogotsu. Urte hartan gure lehen lanuztea egin genuen lantokian. Produkzio-katean egundoko hotza patsatzen genuen eta lan baldintza duinagoen alde egin genuen protesta. Egoerak hartaratuta eta apurka-apurka, ezkerreko erakundeetara hurbiltzen hasi nintzen eta *Langileen Batzordeetan* (CCOO) sartu. Buru-belarri murgildu nintzen borroka politikoan eta horrek herriko koadrilatik aldentzera bultzatu ninduen. Lan politikoa egin asmoz, artean 18 urte bete gabe, Bartzelonara joan nintzen eta han be ezker inguruko jendearekin ibiltzen nintzen. Giro politiko horretan emakume zoragarri bat ezagutu eta harekin maitemindu nintzen. Lehenengoz maitemindu, gainera.

Bartzelonan ezagutu nuen, baita be, *giro*ko lehen taberna. Ez nuke asmatuko esaten zelakoa zen toki hura. Ranbletatik kanpo zegoen eta, beraz, saltsa guztietatik urrun. Bertan hiriko transexual guztiak elkartzen ziren. Ni halakorik sekulan ikusi barik nengoen. Ni bezalako herri-kumearentzat, hura gehiegi zen. Txundituta neukaten. Dena den, gu giro politikoan bete-betean sartuta geundenez, ez ginen *giro*ko tabernatan askorik ibiltzen. Bilbora itzulitakoan ohiko bizimodura itzuli nintzen, neska-mutilen koadrilara alegia. Franco oraindik bizirik zegoen, hanka bat hilobian zeukan arren, eta gu Zazpi Kaleetan ibili ohi ginen, Barrenkalen eta Maria Muñozen, batez be.

Une hartan, 20 urte bete berritan, ez nuen Bilbon emakume lesbianik ezagutzen. Ez behintzat agerian beren burua lesbianatzat zuten emakumeak. Hemen be izango zirela pentsatzen nuen, baina ez agerian. Neu be ez nengoen agerian. 1975an saiatu nintzen lehenengoz neskatan egiten, eta huts egin nuen. Egia esan, ez dakit ondo ordurako argi nuen edo ez, bizitzan zer bilatzen nuen. Saiatu, saiatu nintzen.

Sasoi hartan ni Ezkerreko neska-mutilen kuadrilaren estalkipean ezkutatzen nintzen. Estalkipean esaten dut, haiek babesten baininduten. Horrek ematen zidan aukera neu-

re burua ezertara ez behartzera. Ez nuen ezer gezurtatzen, ezta barne desioak agerikoak egiten. Argi zegoen kuadrilako guztiok, mutilek eta neskek, guztiok ulertzen genuela. Bilbon une hartan ohikoak ziren gay eta lesbianek osatutako koadrila mistoak.

Zakurra hilda, arazoa akabo

Diktadorea hil berri zela (1975), Bilbon *giro*ko tabernak irekitzen hasi ziren. 78an *giro-giro*koa bakarra zegoen, *La Lonja* izeneko taberna. Urte horretan baziren hirian, halanda be, bestelako tabernak, *giro*koak izan barik gizon homosexualei lasai egoteko eta ligatzeko aukera eskaintzen zietenak. Saninazio auzoan, esaterako, *Versalles* taberna zegoen. Neska bik kudatzen zuten taberna eta bertan lesbiana ugari elkartzen zen. Urte haietan, gainera, mugimendu feminista bizkortu egin zen eta EHGAM ezagutzera eman zuten. Labur izan bazen be, EHGAMkide izan nintzen denboraldi batez, ESAM nesken taldean sartu nintzen arte. Gogoan dut EHGAMek izan zuen lehen egoitza, neskokin batera partekatzen zuena, ez zela *Txoko* izan, *Olimpia* zinema aretoaren ondoko lonja bat baizik.

Urte batzuk beranduago, 80. hamarkadaren hasiera *Txoko Landan* ireki zutenean Bilboko gay eta lesbianok aukera ezin hobea izan genuen gure festak egiteko. Mugimendu Feminista egonkortu zenean be, topaleku eta erreferentzia-gune paregabea izan zen *Mamiki* konpartsa. Konpartsari esker, emakumeok eta lesbianok bereziki, gure txoko propioa izan genuen Aste Nagusiko jaigune handian. Kritika ugari jaso zituen arren, txoko berezia izan zen eta izaten segitzen du, *Mamiki* konpartsaren txoznak Aste Nagusiaren bihotzean. Batzuk ez zuten ulertu nahi emakumeok gurea eta guretzako izango konpartsa edukitzea. *Beste hamaika toki ez daukazue bada zuok bakarrik egoteko?*, esaten ziguten. Eta ez ziguten barkatzen alkoholik ez saltzea. Gizonentzako alkohol bako konpartsa edo txozna ulertezina zen. Eta guretzako berriz, emakume lesbianontzako bereziki, hura zen gure txokoa, emakumeak ezagutzeko eta gu geu izateko aukera eskaintzen zigun txoko berezi-berezia, alegia.

Esan bezala, ordurako baziren tabernak Bilbon, baina larregi ez. Neskontzako hor zegoen *Cotis* izenekoa. Mutilak be sartzen ziren bertara, taberna berariaz emakumeontzako sortua zen arren. *La Opera* eta beste batzuk, mutilen kafetegi edo tabernak ziren. *La Lonja* izenekoa be gogoan dut. Oso berezia bertako giroa rokero eta punki samarra zelako. Geroxeago *Canela* ireki zuten, Itxaropen kalean, gero *Convento* izango zena. *Otxoak* be urte haietan ireki zuen bere lehenengo taberna, *Chufa* ireki aurretik.

Gay mutilek bazituzten ordurako beraien topaguneak eta guk emakume lesbianok be bai.

Ni, poteoan ulertzen zuten mutilekin ibiltzen nintzen eta neskaren batekin ere bai. Urte haietan tabernari nenbilen beharrean eta hortaz, goizetan ez nintzen goiz jeikitzen. Horrek eman zidan Bilbo *la nuit* oso ondo ezagutzeko aukera. Oso gustura nenbilen ni, gautxori aparta izanik. Jende asko eta askotarikoa ezagutzeko aukera izan nuen. Egunez oraindik ezagunak ez ziren gaueko giro berezi-bereziak gozatu genituen urte haietan.

Franco ohean zendu zen, patxada ederrean. Guretzako, haren kontra oldartu izan ginen emakume eta gizonentzako, pizkunde urteak izan ziren ondorengoak. Mundua hankaz gora ipini gura genuen. Ez dut esango ezkerreko mugimenduei esker izan zenik bakarrik, baina bai sexualitatearen aldeko borrokan ezkerreko alderdiek be lan handia egin zutela. Haiei esker be bagaude orain, gauden egoeran.

Ezkerrarentzat *tortilerak* ginen oraindik

Hori guztiori onartuta be, aitortu behar dut hastapenean ezkerrari be ulertzea kostatu zitzaiola. Progreak ginen eta nahitaez onartu behar genituen gauzak. Ideologiak hartaratuta, ezberdintasunak onartzera behartuta geunden. Errealitatea, baina, guztiz bestelakoa zen. Ez nuke esango alderdiak, egitura aldetik, itxiak zirenik. Esango dut kideak, edo burkide ugari, zurrunegiak zirela. Haientzako *maritxu*ak eta *tortilera*k izaten segitzen genuen. Halanda be, berriro diot, uste dut alderdiek, egitura politiko ziren aldetik, gurekin bat egin zutela. Behartuta? Ez? Ausnartuta? Barneratuta? Auskalo! Agian kideek ez zuten lar barneratuta gaia, baina horixe da bilakaera, eta ez besterik: Predikatzen ditugun teoriak benetan barneratzen ditugun arte egindako bidea. Nik 1977an utzi nion ezkerreko alderdi bateko kide izateari. Gurea beste alderdi batekin batu zen eta ni ez nintzen gustara geratu, larregizko egitura politikoa idurditu zitzaidan eta. Hilabete batzuk nire kasara eman nituen, mugimendu feministan amaitu nuen arte.

Arestian aipatu bezala, EHGAMkide izan nintzen 80. hamarkadaren hasieran, ESAM nesken taldera pasa nintzen arte. Hasieran EHGAMkideekin batera ibili ginen. Elkarrekin baina banatuta, nolabait esatearren, haiengandik guztiz bereiztu ginen arte. Emakume batzuk, halanda be, EHGAM barruan geratu ziren. Guk, emakume lesbianak ginen aldetik, geure burua eta sexualitatea nabarmendu nahi genituen. ESAMen oso emakume interesgarriak elkartu ginen. Mugimendu lesbianoan lan egitea, baina,

ez zen gauza erraza eta zoritxarrez, gutxira, taldea desegin egin zen. Funtsean bi buru zituen taldeak, oso onak ziren emakume bi, eta gainontzekook ahal genuena egiten genuen. Ezer gutxi, alegia. Liburuxka batzuk argitaratzea lortu genuen, benetan interesgarriak. Garai hartan, gainera, Emakumeen Asanblada lanean hasi zen eta hor barruan Lesbiana Feministen Kolektiboa sortuko zen geroxeago. ESAM desagertu zenean, hainbat emakumek Asanbladara jo genuen.

Asanblada bera baino lehenago, Bilbon *Lanbroa* taldea lanean ari zen. Lesbianak sakabanatuta genbiltzan. *Lanbroa* izan zen gero Asanblada izango zenaren oinarria eta Asanblada barruan lortu genuen, hain zuzen, lesbianok gure talde propioa eratzea. Zergatik berariazko taldea emakume lesbianontzat? Hain zuzen ikusten genuelako bazirela hainbat gai, guri zegozkigunak, mugimendu feministan lantzen ez zirenak; eta bazirelako, gainera, hainbat eta hainbat emakume lesbianak izan arren, feministak ez zirenak. ESAM, esaterako, ez nintzateke ausarteko talde feminista izan zenik esatera.

Talde hauek, lan politiko eta soziala egiteaz gainera, emakumeei aukera ematen zieten euren parekoak ezagutu eta edozelako harremanetan hasteko. Gakoa edo arazoa zen taldeok ez zutela azpiegitura nahikorik izaten harreman horiek errazteko. Emakumeak ezagutzeko aukera bai ematen zuten, neskatan egiteko baina, ez askorik. Baten bat nesketan egitera etor zitekeen taldera, alperrik baina besteek gogorik ez bazuten. Batzarra amaitutakoan nor bere etxera joaten zen. *Txokoa* ireki aurretik, batzarrak EHGAMek Indautxun zuen egoitzan egiten genituen. Hor ez zegoen zer eginik. Bilera bukatu eta etxera. Kolektiboa sortu zenean alta, etxea non genuen ez genekien. Batzarren ostean gautxori bihurtzen ginen. Premia geneukan eta irrikitan izaten ginen emakumeak ezagutzeko. Ordurako Zazpi Kaleetan *Lamiak* ireki zuen, *La Lonja* itxi zutenean, eta gutxira *Bizitza*, *La Chufa* eta *El Convento* izenekoak. Horiek toki aproposak ziren guretzat, emakumeak ezagutu eta elkartzeko. Taldeak hasi zirenean, ez zegoen halakorik ezer.

Bagenekien kalea hartu beharko genuela

Kolektiboan ibilitako urte haietatik oso gogoan ditut gainditu behar izan genituen oztopo eta zailtasunak. Bagenekien taldearen lana ezagutzera emateko, lehenik eta behin kaleak hartu beharko genituela. Baziren kalera ateratzeko arazorik ez zuten emakumeak, beren burua ageri-agerian uztera behartuta ez zeuden bitartean. Eta taldea ezagutzera emateko, agerikoa izan behar zuen gure lana, oso-oso agerikoa gainera. Emakume askorentzat ezinezkoa zen hori, beharretik bota eta lan barik geratuko zire-

naren beldur bizi zirelako. Ez gaitezen engaina, gaur egun be gertatzen da halakorik, baina gutxiago. Garai haietan arriskutsua zen, oso. Egia da EHGAMen bazirela gizonezkoak aurpegia emateko prest zeudenak. Imanol (Alvarez) edo Mikel (Martin), kasu. Edo bazirela gizonezkoak hasiera hasieratik gay zirela publikoki aitortu eta hedabieetan usu agertzen zirenak. Emakumeontzat, gure zoritxarrerako, hori ia ezinezkoa zen.

Andrazkooi kosta egin zaigu aurpegia ematea, lehenago egin zutenek garesti ordaindu zutelako. Aitzakiaren traza izan dezake honek guztionek, baina ez dut uste hala denik. Emakumeok ez geneukan izate sexualik ez bazen gizonaren mesedetan. Hori hasteko. Eta horrekin batera, errazagoa izan da beti emakume bati eraso egitea, gizonezkoei baino. Horrekin ez dut esan gura gay gizonek erasorik sufritu ez zutenik. Ez horixe. Ez daukat ahazteko eta, *Balcon de la Lola*n hil zuten mutila.

Mutiletan aritzea be errazagoa zen gay gizonentzat, guretzat nesketan egitea baino. Mutilek bestelako ohiturak zeuzkaten txortan egiteko eta edozein kale bazterretan ehizan ibiltzeko, gauez batez be. Emakumeonak ohitura askoz babestuagoak ziren, nolabait esatearren. Gureak babestuagoak eta bestelako harreman motak ziren. Ez ziren ez hobeak ez kaskarragoak. Gizonak kalean ibiltzen ziren mutiletan, horrek zekarren arriskuarekin, jakina. Arriskuak arrisku, ondo pasatzen zuten, alajaina! Eta hori *maritxu* izatea eta edozein kale bazterretan ligatzen ibiltzea arriskutsua zela. Edozein unetan jipoia edo labankada jaso zezaketen, *Balcon de la Lola*ko gazteari jazo legez. Neskak zuhurragoak izaten ginen. Besteak beste, gurea korapilatsuagoa izaten zelako. Emakume ginen aldetik, lesbianak ahulagoak ginen.

Gaur girorik ez dagola iruditzen zait

Gaur egun ez nuke asmatuko *giro*a zelakoa den azaltzen. Ez daukat kalean ibiltzeko ohiturarik. Egoera kontraesankorra iruditzen zait, halanda be. Ikusi dudan apurragatik, pentsatzen dut bikote gehiago ikusten direla gaur kalean, *giro*rik gabeko kale triste horietan. Eta gaua zelan dabilen be, auskalo. Eguna ez badut ezagutzen, gaua gutxiago. Politikoki eta gizarteari dagokionez, gauzak hobera egin dutela ez dago ukatzerik. Guk bizi izandakoagaz lekutan dira gaurko onarpen, eskubide eta askatasunak. Gauzak asko egin du aurrera. Erakunde publikoek be egundoko babesa ematen dute, gure garaian pentsaezina zena. Eta lesbianon auzian baino, transexualen mesedetan egindako ahalaginak azpimarratuko nituzke. Gure garaian zoro-etxera eramaten zituzten, zuzenean lobotomia egiten ez bazieten.

Alta, iruditzen zait gure garaian borroka, elkartasuna eta bizipoza pil-pilean zegoela, bizi-bizi. Nik ditudan oroitzapenak egun ikusten ditudanak baino askoz be aberatsagoak dira. Izan daiteke hau guztiau neure ikuspegi mugatua eta erratua izatea, orduan gaztea nintzelako eta gauzak sakonago bizi nituelako. Baina gizarteari dagokionez harreman homosexualak onartuago daudela edo laguntza gehiago eta babes handiagoa dagoela ukatzerik ez dagoen bezala, pentsatzen dut harremanak gaur motelagoak direla.

Izan daiteke gure garaian premiak handiagoak izanik gure nortasuna eta sexualitatea defenditzeko gogo biziagoa izatea. Gaur gauzak onartuago eta arautuago dauden neurrian, badirudi xede guztiak eskuratu ditugula eta ez dagoela elkartasunaren beharrik. Gurekoiagoak bihurtu garela, alegia. Erratuta egon naiteke, baina hala ikusten dut nik: Hainbat eskubide lortu ditugu, gizartearten aldetik errefusa txikiagoa da, beharbada ez daukagu taldearen horrenbesteko premiarik eta gure arteko elkartasunak ez dauka zentzurik. Premiak behartzen gintuen gu une oro indar osoz bizitzera eta, esango nuke, alaitasun askoz be zintzoagoagaz.

Egia da Frankismoa oso garai latza izan zela orokorrean, baina ez guztiz. Nik neuk jende asko ezagutzeko aukera paregabea izan nuen. Maitemindu nintzen, maitatu ninduten, minez maitatu nuen eta larrua jo nuen gura beste, eta gura baino gehiagotan huts egin nuen be. Oso garrantzitsua izan zen guretzat bizitza partekatzea, gure borrokak, itxaropenak eta gogoak hainbat eta hainbat emakumerekin partekatzea. Gurea kalea zen, eta kalea gurea. Oso bizitza zaila egokitu zitzaigun, baina ederra be bai. Mudantza garaiak ziren eta gure errealitateak aldatzeko aukerak gure esku zeuden. Hori guztia bizitzeko zortea izan genuen.

Bizkaian, 2015eko ekainean

HELENA

- **Ez dut gizona izan gura, ezta haien itxura eduki gura be. Andrazkoa naiz eta oso harro nago emakume izateaz**

Helena dut izena, *Hz* idatzita, 52 urte ditut eta bilbotarra naiz. Umetan etxean izandako arazoek hartaratuta urte gutxi batzutan kanpoan bizi izan nintzen arren, bizitza osoa Bilbon eman dut. Une honetan ezkonduta nago eta 23 urte daramatzagu neskalagunak eta biok elkarrekin. Orain hilabete bi ezkondu ginen.

Neskato nintzela ohartuta nengoen lagunekin jolasean ibiltzean, bazela neska bat oso berezia zena niretzat eta irrikitan egoten nintzen harekin jolasteko. Medikutara jolasten genuen maiz eta ahal nuen guztietan haren etxean geratzen nintzen lo egiten. Nik ez nion berebiziko garrantzia ematen harremanari. Neskazale izateak ez nau sekula aztoratu. Inoiz ez. Bizitza osoan eraman dut nire nahiagotasuna oso modu naturalean.

1977. urtean, 14 urte nituela, *Bilitis* filmea heldu zen Bilbora, zinema lesbikoaren klasiko ederra. Kuadrilako lagunekin joan nintzen estreinaldira. Sei lagun ginen, hiru neska eta beste horrenbeste mutil. Aretotik irten ginenean bat-batean atera zitzaidan:

- Ezin naiz hil neska batekin egotea zer den probar barik.

Lagunek bazterrean utzi ninduten. Ez zidaten berba gehiagorik egin. Orduan ohartu nintzen niretzat natural-naturala zena akaso ez zela horren naturala. Jendeak ez zituen gauzak nik bezala ikusten eta aintzat hartzen.

Garai haietatik gogoratzen dudan beste zerbait zera da: EHGAMen (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) batzarrak gure etxean egiten zirela. Bilera haiek gurean egitea guretzat gauzarik normalena eta zentzuzkoena zen. Anaia-arrebak egongelan izaten ginen EHGAMeko neska-mutilek bilera sukaldean egin bitartean. Amak neskalaguna izan zuen hark hirugarren bat ezagutu eta gure ama utzi zuen arte. Amak oso gaizki pasa zuen. Oso gaizki. Horren gaizki non seme-alabetaz be ahaztu egin zela. Bost axola gajoari ordura arte bere begietako niniak izan ginenak. Horren txarto zegoen emakumea seniartekoak arduratu eta beraien kargu hartu gintuztela ama eta haren seme-alabok. Izeba-osabak ahalegin berezia egin zuten ama etxetik atera zedin. Poteora eramaten zuten beraiekin eta maiz *Golar* tabernara joaten ziren. Bertan ezagutu zituzten Luis Angel, *Charcu* ezizena zuena, Luis Mari eta EHGAMeko hainbat eta hainbat kide. Imanol (Alvarez) orduan ezagutu zuen eta lagun egin ziren.

Gure ama EHGAMeko batzarretara joaten hasi zen, bilerak *Boulevard* kafetegian egiten zituztenean. Garai hartan ez zegoen nesken talderik eta EHGAM zen guztien bilgunea. Kafetegia itxi zuten baina, eta batzarrak egiteko lekurik gabe geratu ziren. Orduan hasi ziren bilerak gure etxean egiten.

Amarekin berba egitea erabaki nuen

Amari ez nion inoiz ezer aipatu neskenganako nuen zaletasuna. Halako batean erabakia hartu nuen:Amagaz berba egin beharra daukat.

Eta esan egin nion:

- Ama, neskazalea naizela pentsatzen dut.
- Ondo da…

Egia da, gauzak horrela, gure amari oso gaitza zitzaiola besterik esatea. Horretaz guztiaz orain konturatzen naiz, bizitzak irakatsitakoari esker. Umetan etxean ezagutu genuen neska hura, amaren neska-laguna zena, laguna zen guretzat, ez bikotekidea. Burutik be ez zitzaidan inoiz pasa haien artean sexu harremanik izan zitekeenik. Ezta pentsatu be!

Egun hartan ez zidan besterik esan baina, zelakoak diren gauzak! Gure ama 1983an zendu zen eta arestian aipatu berbaldia 1977an izan zen. Handik egun gutxira niregana etorri eta zera esan zidan, alegia:

- Nahiko hunan medikura joatea ea hark aldatzen hauen?

Ene ama! Txundituta utzi ninduen amaren ateraldi hark. Berehalakoan erantzun nion:

- Ama, nik ez dut aldatu nahi. Naizen bezalakoa izanik, ondo nago. Ez dut arazorik.

Aztoratuta nengoen. Gure ama be ez zegoen oso sano, badaezpada be psikologora eraman ninduen. Behin joan eta ez nintzen sekula itzuli. Garai hartan barneko-ikasle izan nintzen moja-eskola batean 12 urtetik 14 bete nituen arte. Eskolan bazen apaiza bat, oso gizon jatorra eta amak azken saio bat egin zuen harekin. Lagundu ziezadan eskatu zion, neuk bizitza ondo bideratu nezan. Gogo-jardun batzuk baliatu zituen apaizak nirekin berba egiteko. Neskak gogoko nituela aitortu nion. Uste nuen haserretu egingo zitzaidala, hura bekatu larria zela esango zidala eta… ez. Nik 13 urte besterik ez nituen orduan. Halaxe esan zidan apaizak:

- Hago lasai, zoriontsu izango haiz, edo ez, bizitzan aurkitzen ditunen lagunen arabera. Alegia, bost axola neskekaz edo mutilekaz ibili.

Horixe esan zidan 1975 urtean, Franco zendu zen urte berean. Orduz geroztik gure ama ez zen auziaz gehiago arduratu. Edozein ama bezala, kezkatuta bizi zen nogaz nenbilen, nora joaten nintzen, nondik nentorren… Egia esan behar badut, *Bilitis* filma ikustearen ostekoek, psikologoarenak eta apaizarenak eragin handia izan zuten nire baitan eta neure bizitza egiten hasi nintzen.

Zorionez, gaztetasuna Frankismoaren ondorengo urteetan bizitzea tokatu zitzaidan eta horrek aukera eman zidan bizimodu askeagoa egiteko. Ez guztiz librea, hori ez, baina bai lasaiagoa. Neskalaguna eskutik hartuta ezingo nintzen ibili –gaur egun be, ez da gauza samurra- baina izan nahi nuena izateko aukera banuen gutxienez. Orduz geroztik gauzak erruz aldatu dira, hori egia da. Gaur ezkonduta nago, emakume bategaz. Paperean edozer idatzi daitekeela pentsatzen dut batzuetan, baina baita gaitzagoa dela be jendearen pentsamoldeetan aldaketak eragitea. Ezkonduta nago, baina ezin diot edonori esan emakume bategaz nagoela ezkonduta.

Pentsatzen dut ez dudala zertan ezer aldarrikatzen ibili beharrik: *Neu lesbiana naiz!* Ezkutatzen bez. Eta ez da anbiguetateagatik edo, behinik behin, neuk ez nioke horrela deituko. Sarri askotan pentsatzen dugu jendeak deus ez dakiela eta, bai zera! Ezkondu aurretik lankideei aipatu nien ezkontzera nindoala. Guztiek zekiten nogaz:

- Honegaz ezkonduko haiz, ezta?

Nik ezer aipatu gabe, guztiek zekiten. Zergatik? Neure bizimoduaz berba egiterakoan naturaltasun osoz egiten nuelako eta oharkabean gura baino informazio gehiago ematen nuelako. Ez nahiz damu. Ez diot inori esan beharrik nogaz oheratzen naizen, baina ez dut zertan ezkutatu beharrik zer egiten dudan eta nogaz.

Pertsona bakoitzeko, mundu bat

Pertsona bakoitzeko dago mundu bat. Ezagutu ditut homosexualak izateagatik etxetik bota zituztenak. Gurean izan genituen babestuta gurasoak haien izateaz jabetuta etxetik kanporatutako neskak eta mutilak. Nik ez nuen inoiz arazorik izan. Amagaz ondo, baita sendiko gainontzeko guztiekin be, berdin. Aitite-amamak, izeko-osabek, nebek eta ahizpek guztiek onartu ninduten beti nintzen bezala. Gogoan dut 17 urte nituela aititek esandakoa:

- *Neronek beste bizimodu bat gurago neuke zeuretzat* –esan zidan-*, baina aitortu behar deutsut zeu zoriontsu ikusiz gero, neu be pozik geratzen naizena.*

Etxean guztiek jakin dute beti nor zen nire neska-laguna, nondik nenbilen eta zer nuen atsegin. Beti izan dut oso argi baten batek nire bikotekidea errefusatu izan balu, ni neu errefusatzen ninduela. Eta hain argi izan dut beti hori, arazoa amak, neba-ahizpek edo beste inork ipiniz gero, haiekaz akabo. Baina egia da, baita be, guztiek jakin arren eta, teorian gutxienez, guztiek onartu arren, etxean istiluren bat izan dugunean inoiz entzun behar izan dudala: *Marimutil madarikatu hori!* Eta hori aintzat hartzen nindutenek esanda.

Emakume guztiek ez zuten izan nik bezainbesteko zortea. Ezagutu nuen *Palanca*n beharrean amaitu zuen emakumerik, beste inon ez zutelako hartzen. Badakit, alde horretatik behintzat, pribilegiatu samarra izan naizela. Hori ezin dut ukatu. *Giro*ko tabernetara be amagaz eta haren kuadrilakoekaz hasi nintzen joaten. Ama eta bion artean 19 urteko aldea dago. Nik beti izan dut zaharragoaren planta eta hark, berriz, gaztea-goarena. Sarri joaten ginen *Macumba* dantzalekura, Iparragirre kalean. Ez zen *giro*-tokia bikoteentzako gunea baizik, baina azkenean *giro*a erabiltzaileok sortzen genuen. Beranduago modan ipini zen *Reala* izeneko taberna, Rodriguez Arias kalean. Hau be ez zen, ustez, *giro*koa. Hura zen Bilbo osoan aurreratuena, apurtzailea erabat. *Reala* bera ireki baino lehenago, Cesar eta Juan ugazabek *Cotis* izeneko taberna izan zuten eta bertan ezagutu nuen *Otxoa* kantuka, oraindik Gurutzetan beharrean ari zela. Liskar handiak izaten ziren Martin eta *Otxoaren* artean, ea nork kantatu hobeto. Biak ala biak, oso onak ziren, egia esan. *Cotis* izan zen neronek ezagututako lehenengo *giro*ko taberna. Han ez zegoen disimuluan ibili beharrik. Garai hartan oso neska gutxi ibiltzen ginen *giro*ko tabenetan. Hor ezagutu nuen mutil bat gero nire lagun mina izango zena eta urte batzuk beranduago hiesak hartuta zenduko zena. Mutila nintzelakoan sartu zitzaidan, ligatzeko, eta horrela ezagutu genuen elkar.

Izan be, inoiz ez ditut emakumezko ezaugarriak izan. *Mari-motrailu* samarra izan naiz beti: Ilea beti eraman izan dut motz-motza; beti praka bakeroekaz, alkondara soinean eta txalekoa zein txamarragaz. Arropa be mutilen dendetan erosi ohi nuen. Zergatik hori? Erosoagoa egiten zitzaidalako. Inoiz ez dut gizona izan nahi izan, ezta haien itxura eduki be. Gizona gizona da eta ni emakumea, eta oso harro nago andrazkoa izateaz. Ez dut zertan gizonaren planta egin beharrik. Eta hala atsegin dut eroso jaztea eta niretzako oso erosoa zen ilea motz-motza, eta oso erosoak prakak. Prakak ez ditut inoiz kendu, atsegin ditudalako eta erosoago bizi naizelako. Amore ilearekin eman dut, eta orain luzexeago utzi ohi dut. Ez ditut 18 urte, 80. hamarkadan bezala,

eta bestelako lehentasunak ditut gaur egun. Baina ez naiz sekula makilatu eta gonak ez ditut inoiz gogoko izan. Eskolan be, barneko-ikasle bezala egon nintzenean, gona jaztera behartzen ninduten eta eskolatik atera bezain pronto prakak jazten nituen. Lumarik ote nuen? Bai, eta? Bost axola niri. Ni eroso nengoen eta gustura bizi nintzen. Ezagutu ditut egundoko luma eduki arren, ulertzen ez zuten emakumeak. Euskal Herrian usu gertatzen da hori.

Neskak borrokarako antolatu ginen

EHGAMkideek Iparragirre kalean egoitza hartu zutenean gure etxean batzarrak egiteari utzi zioten. Garai hartan izan zen, gainera, Bilbo utzi eta kanpoan izan ginela bizitzen. EHGAM egoitza hartan biltzen zenean neska batzuk geure taldea egiten saiatu ginen. EHGAM mutilen esku zegoen eta larregizkoa zen haien eragina. Hartaz, neskok ESAM sortu genuen. Astean behin elkartzen ginen. Zoritxarrez, taldean ohikoa gertatu zitzaigun, neska bi EHGAMkide izanak zirela eta haien esanetara geundela gainerako guztiak. Oso gutxi ginen taldean, egia aitortu behar badut. Ez dut gogoan zazpi emakumetik gorako bilerarik inoiz egitea lortu genuenik. Inoiz ez. Oso zaila zen eta porrot egin genuen. Taldeak ez zuen urte asko iraun. Gastuak mutilekin partekatu behar izaten genituen, dirua jarri beharra zeogen eta neuk, esaterako, 14 urte besterik ez nituen.

Urte haietan emakume lesbianontzat ia derrigorrezkoa zen gay gizonen tabernetan ibiltzea. Horrek ez du esan nahi *giro*an neska ugari ibiltzen zenik, baina ibiltzen ginen gutxi horiek mutil homosexualekin ibiltzen ginen. Neure lagunak, esaterako, guztiak ziren gizonak, gay gizonak. Noiz hasi nintzen neskak ezagutzen? *Llois* tabernara edo *Distrito 9* izeneko dantzalekura joaten hasi nintzenean, ordura arte beti mutilekin. *Llois* tabernako giroa zoragarria zen, neure etxeko egongela hura zela esan ohi nuen. Oraindik beharrean hasi barik, eskolatik atera eta bertara joaten nintzen, ia egunero. Bertan hasi nintzen neure moduko neskak ezagutzen, neska piloa gainera. Gaur egun, oraindik, garai hartako neskak elkartu ohi gara. Orain gutxi bazkaria egin genuen eta 17 andra batu ginen.

---

*Giro*a ezagutzen eta disfrutatzen

Zentzuzkoena orduan, orain eta beti bezala, norbera bezalakoekin elkartzea izaten zen eta nork bere gustukuak zituen tokietara joatea. Beraz, *Llois* itxi zutenean *Distrito*

9 dantzalekura joaten hasi ginen; *Golar* itxi zutenean, *Harris* tabernara; *Cotis* itxi zutenean, *Chufa*ra, *Totolo*ra; *Totolo* itxi zutenean, *Convento*ra… eta gero eta emakume gehiago batzen ginen tabernetan. *Totolo* emakumez beteta egoten zen. Hura izan zen lesbianentzako ezagutu nuen berariazko lehenengo taberna. Barrenkalen zegoen, *Chufa* ondoan. Taberna hauek guztiek bete zuten papera ezinbestekoa izan zen, gay eta lesbianontzat. Eta ez bakarrik Bilbon. Hiri handi guztietan berdin gertatu zen. Bartzelona oso kosmopolita izango zen, Bilbo bera baino gehiago, baina bertara joaten ginenean be *giro*ko tabernetan amaitzen genuen.

Guetoak ote ziren? Ez dut uste. Izango dira bazirela uste dutenak eta beharbada arrazoi izango dute, baina azkenean horiek ziren toki bakarrak non gu gustura egoten ginen eta gu geu izateko aukera izaten genuen. Eta *giro*an oso gustura egoten ginen, eta lasai be bai, nahiz eta Arriskugarritasun Sozialaren Legea oraindik indarrean zegoen eta leku horietan egoteak bazuen arriskurik. Berdin zitzaigun, errepresioari ez genion jaramonik egiten. Eta tabernetan bakarrik ez, lagunen etxeetan be usu elkartzen ginen. Nire kasuan mutilen etxeetan, batez be.

Gauetan oso toki gutxi egotn zen irekita eta zeuden gutxi horietan denetarik elkartzen ginen: *Palanca*tik zetozenak, *Balcon de la Lola*n mutiletan ibilitakoak, kalean ezer *harrapatu* ez genuenok, kalean zer harrapatu ez zegoelako… eta horiei guztiei (polizia) sekretuak gehitu behar zitzaizkien *Harris* tabernan. Azken hauekin inoiz arriskurik bazegoen gainera, *Charcu*k berehala ohartarazten gintuen. Polizia batzuk ulertzen zuten eta ligatu gogoz joaten ziren *Harris* tabernara, baina gehienak zelatatzen egoten ziren. Inoiz tabernako guztiak NAN ahoan sartuta ateratzen gintuzten kalera. Ni neu ez ninduten sekula atxilotu, nahiz eta sarekadaren batean edo bestean egotea eta nigaz zeudenak bai atxilotu zituzten. Hori bai, errepresioa errepresio inoiz ez genuen ondo pasatzeko, dibertitzeko eta gu geu izateko gogorik galdu. Arestian aipatu bezala, gure etxean babestu izan genituen gay edo lesbianak izateagatik kale gorrian geratutako bat baino gehiago. Orduan ez genituen izango gaur ditugun baliabide ofizial guzti horiek, baina ez zitzaigun elkartasunik edo laguntzarik falta izan, inoiz ez.

Gogoan ditut, baita be, *Tango* izeneko dendan egiten genituen bilerak. *Tango* Santik, *Perro Chico* jatetxeko ugazabak, Gregorio de Revilla kalean zeukan denda zen. Itxitakoan dendapeko sotoan elkartzen ginen berba egiteko. Ez ginen bakarrik gizon edo emakume homosexualak elkartzen. Intelektualak ziren gehienak eta edozein gairen inguruan hitz egiten genuen, askatasun osoz. Batzar horietan entzun nuen lehenengoz bazirela bisexualak, txortarako gizon zein emakumeak atsegin zituztenak, alegia. Ordura arte halako berbarik bazenik be ez nekien. Bilera horietan edozein gairen ingu-

ruan askatasun osoz egiten genuen berba. Argi dago baliabideak behar dituzunean harripean be aurkitzen dituzula. Eta guk egin legez, gu baino arinago 50. hamarkadan homosexualak izan ziren emakume eta gizonek be egin zuten. Bilatzen zuenak, aurkitzen zuen: Aixerrotako pinudia, *Balcon de la Lola*, *Arriaga*ko kafetegia, *Arriaga* bera *Arriaga* zenean… bizitzen asmatu genuen.

Egia da mutilentzat askoz be errazagoa izaten zela txortan egitea. Neskak berriz, ni neu behintzat bai, hilabete bat egon gintezkeen sexu barik eta ez zen ezer gertatzen. Mutilek edozein bazterretan aurkitzen zuten eta txiza edozein txokotan egiten duten legez, txortan be edozein tokitan egiten zuten.

Etsipen handia izan zen niretzat mugimendu feminista

Sortu berria zen mugimendu feminista barru-barrutik ezagutu nuen 80. hamarkadan. Gogoan dut etsipen handia izan zela niretzat Emakumeen Asanbladaren baitan sortu berria zen Lesbiana Feministen Kolektiboaren lehenetariko batzar bat. Arriaga Antzokian 83ko uholdeen aurretik egiten ziren batzarretan askotan izan nintzen eta beti atsekabetuta etxeratzen nintzen. Ez dut erradikalismorik gogoko, ez dut inoiz gogoko izan. Andrazko izateaz oso harro nago. Inoiz ez dut gizona gura izan, ezta haien itxura eduki edo gizonezkoen atzetik ibili gura be. Sekula ez dut aditu gure eskubideak aldarrikatzeko eta gizonen eskubide berdintsuak erdiesteko gizonezkoak gutxietsi behar zirenik. Hori bizi izan nuen, hori ikusi nuen eta hori entzun nuen. Emakumeen hainbat aldarrikapen ez ditut sekula aditu. Esaterako, ezin nuen aditu zergatik martxoaren 8an ezin ziren gizonak *Convento* tabernara sartu. Kuadrilan joan ginen egun hartako manifestazioaren ostean, eta gizonezko lagunak ez zituzten sartzen utzi. Ezin nuen halakorik aditu. Festa itxi bat egin gura izanez gero, egitea zeukaten, baina hura taberna bat zen, atea irekita zegoen eta edozein sar zitekeen. Edo hala uste nuen nik, behinik behin.

Izan daiteke horrela pentsatzea mugimendu feministako emakumerik setatienak ezagutzea egokitu zitzaidalako. Barruan sartuta egon nintzen, baina oso denbora gutxian. Beharbada bizi genituen denborak erradikaltasunareko egokiak izango ziren, ez dakit. Halanda be hainbat jarrera ezin nituen ez aditu ez onartu. Eta ez neukan arazorik hilean domeka baten festa egitea *Txoko Landan* egoitzan andrazkoentzako bakarrik. Egun horretan neuk banekien mutilak ezingo izango zirela sartu eta neronek erabakitzen nuen joan edo ez.

Bizitzan izan ditudan erreferentziak ez dira batere matxistak izan. Etxean ez nuen halakorik bizi izan inoiz. Aitite bazen apur bat zorruna, baina azkenean etxe hartan agintzen zuena, benetan, amama zen. Eta etxean aitarik izan ez genuenez, bestelako ereduekin hezi ninduten. Pentsatzen dut egundoko kaltea egin ziotela mugimendu feministari gizonezkoei oldartu gura zitzaizkien andrazkoek.

Hiesak kendutako lagun piloa

Ez nuke lekukotasun honegaz amaitu gura hiesak jota zendutako lagunen gaineko aipua egin barik. Urte mordoa behar izan genuen hainbat lagun hiesak eragindako gaitzen batek jota hil zirela jakiteko. Zendu zirenean ezin zen halakorik aipatu. Nik jakin nuenez Jose izan zen hiesaren eraginez hildako lehenengo laguna. Hura izan zen *Co-tis*en nigaz ligatu gura izan zuena. Lagun minak ginen. Ofizialki, halanda be, neumonia batek jota zendu zen.

Hiesa ezkutatu egiten zen. Etxekoengatik eta pandemiak berak eragin zuen itzuagatik. Hasiera batean kutsatzeko eskua ematearekin nahikoa zela esaten ziguten. Birusa zelan har zitekeen ez genekien, ez eta gaitzaren sintomak zeintzuk izan zitezkeen bez. Hain zen egoera latza, gaixotutakoan jendeak bere burua isolatzea erabakitzen zuela. Egia osoa esatearren, giro hori ez bazenuen oso gertutik ezagutzen edo ez bazenituen lagun minen artean gizon homosexualak, oso gaitza izaten zen hildakorik bazela be jakitea.

Gogoan dut oraindik Josu Unanue hedabideetan agertu zen unea, bera seropositiboa zela aitortuz. Hura izan zen nik ezagutu nuen lehenengo pertsona itxuraz ez homosexuala gib birusarekin bizi zela publiko egin zuena. Urte haiek oso latzak eta korapilatsuak izan ziren gu guztiontzat. Edozergatik *giro*tik hiruzpalau aste desagertzen zinen eta itzulitakoan hiru edo lau ezagun hil zirela jakiten zenuen. Kolektiboan be izugarrizko hika-mika izan genuen gai horren inguruan, batzuk hiesaren kontrako borrokan buru belarri sartu behar ginela uste izan genuen bitartean, beste askorentzat hiesa gizonen arazoa zen, ez gurea.

Gauzak dezente aldatu dira, asko

Azken urteotan gauzak dezente aldatu dira. Asko esango nuke nik. Legeari dagozkion aldaketak, esaterako, izugarriak izan dira. Gizartean be hobera egin du gaiak. Alaba, neska bategaz ezkontzea sekula onartuko ez zutenek be, onartu dute azkenean. Eta

halanda guztiz be, *giro*ari dagokionez gauzak oso gutxi aldatu direla pentsatzen dut. Egungo neska nerabeak ikusten ditut eta… guk haien adina geneukanean ginen bezalakoak direla begitantzen zait. Luma eta guzti, neska guztiek mutilak dirudite. Itxura femeninoa duen neskarik topatzea gaitza izaten da, benetan. Ez dakit neskak benetan aldatu diren, edo ez. Ez dakit den adin zehatz batean zeure burua aldarrikatzeko premia daukazulako, edo zergatik den. Baina egia da gauzko neska gazteak gure garaiko luma garratz haiek berreskuratu dituztela.

Aldatu dena, zoritxarrez, errepresioa da. Gaur Bilbon kalearen erabilera arautu dute txortaketak debekatu eta galarazteko. Izugarria da Bilboko Udalak egin duena. Edozeinek ez ditu 60€ premia daukanean hotel bat hartzeko. Ezin dut aditu zelan ipintzen dituzten udaltzainek Santo Domingon, PPk ipinitako salaketa bati erantzunez, eta ez Artxandan –eta ez nuke ipintzerik gura, uler bedi zer nabilen salatzen- bikote heterosexualek hartuta daukatena gura dutena egiteko. Errepresioaz ari naizela, halanda be, aitortu behar dut nik ez dudala sufritu, ez Frankismoan, ez diktaduraren osteko lehen urteetan, nik baino urte batzuk gehiago dituzten andrazkoek sufritu zutenaren erdia. Eta daukadan izakerari esker, harrotasunez esaten dut ez naizela sekula armairu barruan ezkutatuta egon. Inoiz ez dut nogaz oherantzen naizen kontatzeko premiarik sentitu, baina era berean ez naiz sekula ezkutuan aritu.

Bizkaian, 2015eko maiatzean

JOSU

- **Nork bere burua onartu beharra dauka, inork ez zaitu onartuko-eta zuk zeuk zarena onartzen ez baduzu**

Josu naiz, 64 urte ditut eta erretiratuta nago. Maisu izan nintzen ofizioz. Beti maite izan dut maisu izatea eta, onartu beharra daukat, ondo bizi izan naizela. Gurea ez zen familia lar egituratua, ez eta desegituratua ere. Gure aita zena kontratista zen eta beti zebilen lanean. Etxean ez genuen askorik ikusten aita lanagatik zein bere gurasoen etxearekiko zuen atxikimenduagatik. Alegia, oso harreman estua zuen gurasoekin eta ahizpekin eta gu berriz, ahaztuta bezala gintuen. Igandetan izan genuen aitak eta biok harremanik estuena, futbolera eramaten ninduenean. Nik ez nuen futbola gogoko, baina ni lagunekin jokatzen uzten ninduen bera bereekin jokatzeko. Edo zinemara joaten ginen. Amarekin ere ez nuen gertuko harremanik izan. Esatea gogor samarra bada ere, gure amari arrotza zitzaion maitasuna bera.

Etxean ez nuen maitasunik ezagutu eta agian horregatik, hutsune hori lanarekin, seme-alabekin eta orain, lobarekin betetzen saiatu izan naiz. Ez dakit nola egin dudan aurrera egiteko. Bai lagunek bai bikotekideek beti esan didate izakera ingelesekoa nintzela, patxadatsu edo flematikoa, alegia. Halakoxea dut aldartea. Barruko sentimentuak ez ditut inoiz adierazten, inoiz ez. Pozik egon nahiteke, triste…

Ikasketak *Frente de Juventudes* mugimendu falangistaren eskola batean egin nituen. Han den-denak mutilak ginen. Jasotako heziketa zikiratzailea izan zen, erabat. Eta ez bakarrik erlijioagatik, horretan ere astunak izan ziren arren. Gogo-jardunak maiz izaten genituen eta horietan egundoko astinduak ematen zizkiguten. Dena zen txarra, dena zen arriskutsua. Izakera zikiratu ziguten maisuek eta apaizek. Garai haietan homosexualitatez entzun nuen gauza bakarra apaiz baten ahotik izan zen. Orainik oso gogoan dut gizon hura, bai eta haren izena eta abizenak ere. Sinezgaitza izan zen. Haren esanetan baziren emakumeekin egoteaz aspertzen zirenean, beste gizonengana jotzen zuten gizonak; eta haiekin aspertutakoan, animailekin hasten omen ziren.

Nik 14 urte besterik ez nituen eta hura izan zen harreman homosexualen inguruan izan nuen lehen albistea. Eta hala izan zen ikasketak beti mutilen artean egin nituen arren. Batxilergoa amaitutakoan, Magisteritza Eskolara joan nintzen eta kanpaldi bat egin genuen ikaskideok. Hor ere, guztiak gizonezkoak ginen. Ikaskideak lagun nituen. Burutik ere ez zitzaidan besterik pasatzen. Gustuko nituen, edo ez, auskalo. Baina ez

nuen horretan pentsatzen. Begiratzen nituen, jakina, baina ez gogo fisiko batek hartaratuta. Soldaldutzara joatea egokitu zitzaidanerako, emaztegaia ere banuen eta harekin ezkondu nintzen, artean birjina nintzela. Gaurkoekin alderatuta, garai haiek guztiz ezberdinak ziren.

Ezin dut esan maiteminduta ezkondu nintzenik

Nire emaztea izango zenarekin ezkondu nintzenean ezin dut esan maiteminduta nengoenik. Egia aitortu behar badut, ez dakit zertaz ari diren sabeleko tximeletak aipatzen dituztenean. Nik ez dut halakorik sentitu, inoiz ez. Ez emazteagatik, baina ezta gerora izan nituen gizonezko bikoteengatik ere. Eta horrek ez du esan nahi emaztearekin txarto moldatzen nintzenik. Gurea nahiko harreman ona izan zen. Beti izan genuen, eta daukagu oraindik, lotura estua. Ohean ere bai. Sexuan ondo moldatu ginen urtetan. Izan ere, 20 urte baino gehiago generamatzan ezkonduta arazoak hasi zirenean. Internet medio, neu harreman homosexualekin hasi nintzen amets egiten eta hura izan zen gure akabera.

Jakinminak hartaratuta gay web-guneak begiratzen hasi nintzen. Gogoan dut niretzat inflexio-puntu izango zen gertaera. *Zero* aldizkariak goi graduko militar bat atera zuen azalean. Bera homosexuala zela adierazten zuen eta zera pentsatu nuen:

- Eta ni haren berdina banaiz eta arazoa ni ez ausartzea bada??

Militar hari egindako elkarrizketak nire bizitza aldatu zuen, Internet bidez gizonezkoak ezagutzen hasi bainintzen. Hasiera batean hitz egin besterik ez genuen egiten, behin, hondartzan, 49 urte nituela, gizonezko batekin txortan egin nuen arte. Gizon hura ez nuen batere atsegin. Ez fisikoki, ez izakeraz. Ez nuen batere gogoko. Baina txortaldi horren ostean emaztearengako lilura galdu nuen, erabat. Ez nuen emakumea jada desiatzen. Emaztea kezkatzen hasi zen eta oso garai latzak pasa genituen. Oso-oso latzak.

Hurrengo hilabeteak oso gogorrak izan ziren niretzat. Gogoan dut hiltzeko irrikan nengoela. Trenak edo autobusak harrapatzea besterik ez nuen desio. Ez nekien zelan egin aurre gertatzen ari zitzaidan guzti hari. Ni neu gizon heldua nintzen ordurako, seme-alaba koskortuak zituena. Egunak eramangaitzak egiten zitzaizkidan. Akenean, lehertzeko zorian nengoen egun batean, egoera jasanezina zenez emaztearentzat eta biontzako, berarekin hitz egitea deliberatu nuen. Ez dakit nondik atera nituen indarrak baina guzti-guztia aitortu nion. Barruak hustu nituen, hutsik geratu arte.

Hutsik eta bakean. Emazteak oso gaizki hartu zuen aitortza, egia larregizkoa izan zen berarentzat. Ondorengo hilabeteak infernua izan ziren guretzat, denboraren poderioz jazoakoa gainditu eta berriro adiskidetu ginen arte. Gaur esan dezaket lagun-min dudala emazte ohia.

Denbora batez bisexuala izan nintekeela pentsatu nuen. Artean ezkonduta nengoela, aldizkari pornoei begiztatuta berdin disfrutatzen nuen txortaldi heterosexual zein homosexualekin. Guztiak nituen gogoko, nahiz eta inoiz ez okurritu ni neu beste gizon batekin egon nintekeenik ohean. Emaztea eta biok ondo moldatzen ginen ohean eta, bestela, beti nuen idiarena jotzeko aukera. Garai hartan askoz ere aberasgarriagoa zen niretzat emazteak eta sendiak berak eskaintzen zidaten egonkorasun emozionala, beste ezer baino. Hori guztia arriskuan jartzeak ez zuen merezi.

Erabat arrotza zitzaidan mundu batean sartuta

Gay mundurako pausoa eman nuenean kezkarik handiena non sartzen nintzen ez jakitea izan zen. Erabat arrotza zitzaidan mundu hori. Homosexualitatearen gaineko oso ikuspegi estereotipatua nuen. Niretzat gizon homosexual guztiak berdinak ziren: gazteak, ederrak eta gihartsuak. Neurekiko pentsatzen nuen:

- Zer hostia egin behar dut nik, ia 50 urteko gizon mardulak, mundu horretan?

Zorionez, adiskide batek *ALDARTE*ra joateko gomendioa egin zidan. Bilbon dagoen Lesbiana, Gay eta Transexualen Arreta Zentroa da hori. Bertan lagundu ninduten eta haiei esker lortu nuen neure burua ezagutu eta onartzea. Oraindik etxekoekin bizi nintzela murgildu nintzen gay *giro*an. Entzuteko gogorra bada ere, oraindik emaztearekin egiten nuen lo, ohe berean. Ez neukan nora joan, gure ama zenak bere etxea utzi zidan arte. Bera arrebarekin bizi zen eta etxea hutsik zegoen. Gabonak ziren etxez aldatu nintzenean. Etxe berria moldatzen ari nintzela, txirrina jo zuten. Emaztea zen, laguntzera etorri zitzaidana. Bion artean txukundu genuen etxea eta amaitu genuenean hara joan nintzen bizitzera, bakar-bakarrik.

Gogoan dut egun haietan arrebarekin izandako solasaldia:

- Bizitzan lehenengoz, bakar-bakarrik nago. –esan nion.

Mundua gainera erori zitzaidan. Ez nekien gai izango ote nintzen bizimoduari aurre egin, nire bizitza berregin eta, nolabait esatearren, neure burua igerilekura botatzeko. Nire zoritxarrerako, gainera, beti izan naiz oso lotsatia eta *giro*a bera ez dut inoiz

gogoko izan. Ez naiz gautxori eta ez dut neure burua gaueko giro lizun horietan ikusten. Harremanetarako ere eskas samarra izan naiz, ez naizelako sekula lehen pausoa ematera ausartu. Behin, esate baterako, gay sauna batean nengoela gizon bat izan nuen oso gogoko. Hari begira egon nintzen luze eta hura niri begira. Ez bata ez bestea ez ginen ezer egitera ausartu. Biharamunean hondartzan elkartu ginen berriro, Barinatxen, Salvaje bezala ezagun den horretan. Barrezka hasi ginen biok, baina orduan ere ez genuen besterik egin.

Ni bezalakoentzat, zorionez, bada Internet. Sareari esker hasi nintzen gizonak ezagutzen. Artean ezkonduta nengoela gizonezko bat ezagutu eta harekin harreman moduko bat izan nuen. Pentsatu izan nuen gure artekoa berez zena baino sakonagoa zela eta, bat batean, amaitu egin zen. Orduan ohartu nintzen, oso gogorra izan arren, mundu honetan denetarik dagoela. Denetarik eta edozertarako. Urteak joan urteak etorri, hainbat mutil-lagun ezagutu nituen, izan genuena nolabait azaltzearren, eta orain badut 12 urtez iraun duen harreman egonkorra.

Banaiz oraindik semeak beti ezagutu zuena

Emaztea eta biok banandu ginenean argi esan zidan seme-alabekin neuk hitz egin beharko nuela. Eskerrak biak helduak ziren ordurako. Hala ere, haiekin hitz egin nuenean hanka sartu nuen. Berehala damu izan nintzen arren, lehenengo alabarekin hitz egin nuen, bera zelako txikiena, eta gero semearekin. Ez nuen biekin batera hitz egin. Semeak nahiko txarto hartu zuen gurasoon banaketa, berea zelako kuadrilan ordura arte banatu gabeko sendia eta oso gaizki pasa zuen. Harekin hitz egin nuenean, ez zidan ezer esan. Alabak bai, besoetan hartu eta bere aita nintzela gogorarazi zidan. Alabarekin ez zen ezer aldatu. Semearekin baina, hasieran bai. Halako batean baina, bizitzan zerbait jazo zitzaion erakutsi ziona neu betidanik ezagutu zuen gizon hura izaten segitzen nuela. Niretzako seme-alabak izan dira beti munduko gauzarik haundiena, zoragarriena, eta biek dakite beti izango nautela edozertarako prest.

Jakin badakit beste familia bat osatu dudala orain baina, niretzat, batak ez du bestearekin zerikusirik. Ni mutil-lagunarekin nago, elkarrekin gaude, baina ez dut uste gauza bera denik. Ez dakit nola azaldu, baina ez da gauza bera. Berarekin daukadana ez da emaztearekin eta seme-alabekin nuena. Izan daiteke bera ere heldua delako, amarekin harreman oso estua duelako eta nik berriz, seme-alabekin. Bere familiarekin hainbat gorabehera ere izan ditut, familia ospakizunak egin eta ni

gonbidatu ez nautelako. Horrek sutu egiten nau. Haientzat laguna naiz, ez familia. Mutil-lagunak ere halaxe aurkeztu izan nau, lagun bezala, naiz eta horrenbeste urte elkarrekin egon ondoren, guztiek jakin gure artean zer dagoen. Bere amak *seme* esan ohi dit eta! Horregatik diot gure artekoa ez dela emaztearekin izan nuenaren parekoa. Ez da ez hobea ez okerragoa, desberdina. Izan daiteke jaso zuen heziketagatik izatea, baina bikoteenganako –emaztea lehen eta mutil-lagunak gero- ez dut sekula sentitu izan seme-alabenganako dudan maitasuna. Haienganakoa bai da zintzoa eta sakona.

Lagunak lagun dira, baldintzarik gabe

Etxetik kanpo betiko kuadrilarekin segitzen dut. Gure artean badira gizon-emazteak eta baita mutil bikote bat ere. Guztiek dakite norekin bizi naizen eta onartzen dute. Egia da zer zegoen aitortu nienean ika-mikaren bat izan nuela lagunetako batekin, homofobo samarra zen eta. Azkenean, hark ere onartu ninduen eta egun gustura nabil kuadrilarekin. Lagunak lagun baitira, baldintzarik gabe. Pentsatzen dut jendearen aurriritziak aldaraztea posible dela, batez ere ezagutzen zaituztenean. Zu betiko laguna izaten segitzen eta estimatzen zutena zarela oharzen direnean, hasierako dudak uxatzen dituzte. Benetako lagunari berdin zaio etxe barruan zer egiten duzun, edo norekin egiten duzun. Horrek ez zaitu aldatzen eta kuadrilarentzat zinena izango zara beti. Kuadrilan ez zen ezer aldatu. Neu aldatu nintzen, neure egunerokotasuna aldatu zen, baina lagunekiko harremanean ezer ez zen aldatu.

Orain bikote-lagunarekin nabilela, oso gutxi ibiltzen gara *giro*an. Inoiz antzokira joan izaten gara eta gero pote batzuk hartzen ditugu Zazpi Kaleetan, baina bestela etxezuloak gara oso eta filmeak ere nahiago izaten ditugu etxean ikusi.

***Zaharrok* elkartean, laguntzeko prest**

Ni ez nintzen ez nerabe ez gazte homosexuala izan. Gizontasunarekin batera heldu zitzaidan bizimodu homosexuala. Horrexegatik sartu nintzen *Zaharrok* izeneko elkartean. Bertan adineko gay gizonak elkartu ohi gara eta gurea izan zen oroitzapen historikoa biltzeko ideia. Elkarte horretan laguntzeko nago, emakume eta gizonei jakinarazteko nork bere burua onartu beharra daukala, inork ez gaituelako onartuko guk geuk garena onartzen ez badugu. Inoiz eskolaren batean gaztetxoekin hitz egiten egon izan garenean, halaxe esan diegu:

- Lehen-lehenik zuk ezagutu behar duzu zer zaren, eta onartu.

Badakit ez dela beti erraza izaten. Baldintza sozialak ez dira beti errazak izaten. Oso zaila izaten da oraindik jendearentzat normala edo arrunta ez den giza-talde bateko partaide izatea. Horretarako gaude gu, horretan laguntzeko. Zaharrok elkartera jende asko etorri izan zaigu, gizonezkoak batez ere, pausoa zelan eman ez zekitenak. Guztiei esan izan diegu ezin dugula bizi egiazkoa ez den bizimodua. Frustragarria ez ezik, zikiratzailea ere bai baita ez zarena izaten ahalegintzea. Neuretzat ere oso gogorra izan zen neure burua onartzea. Denbora luzean ni ez nintzen ni, eta ni ez nintzenez ez nintzen ni bezala bizi eta horrek eragina zuen neure egunerokotasunean: etxean, lanean eta bizitzan. Toki guztietan irribarretsu agertu arren, goibela zen nire begirada. Tristea, erabat. Taldean horretarako gaude gu, jendeak pausoa eman dezan laguntzeko. XXI. mendean buru-belarri sartuta, badira oraindik homosexualitatea oso gaizki bizi dutenak. Pausoa ematea zaila da, baina baita oso atsegina ere.

Ikaskuntza ez da Heziketa

Iruditzen zait nire ofizioak asko lagundu nauela nire burua onartze prozesu horretan. Onartu behar dut ikasketez ari naizelarik, ez dudala batere gogoko Hezkuntza bezalako berba ponposoak erabiltzea. Heziketa, etxean jasotzen duguna da. Eskolara gaztetxoak ikastera doaz, pertsonak izaten ikastera eta balio-eskalaren bat lortzera. Horretarako dago eskola, ikasten ikasi dezaten. Nik ikasitako eskolan ez zen horrela. Han *ixildu eta ikasi*, besterik ez zegoen. Ikastetxea pribatua zen. Banuen beka bat eta etxean ikasten nuen. Beti izan nintzen oso mutil zuhurra: eskolatik etxera eta ez nintzen lagunekin jolastera ateratzen etxeko-lan guztiak amaitu arte. Baina beldurgarria zen eskolako ikasketa sitema. Egurra eta irainak eguneroko ogi genituen, orduan esaten ziguten bezala, *la letra con sangre entra* (letra odolez ikasten da).

Eskolan lanean hasi nintzenean, oraindik frankismoaren eragina pil-pilean zegoen arren, maisu-maistra gazte asko zegoen gauzak aldatzeko irrikaren sukarrak hartuta. Garai hartatik oso gogoan dut Adarra pedagogi erakundea. Orain 40 bat urte liluragarria zen talde hartako jendearekin lan egitea. Franco zendu zenean ni lanean nintzen. Ordurako neskak eta mutilak elkarrekin zeuden ikasgela gehientsuenetan. Nik beti maitatu izan dut ikasleekiko harreman zuzena. Garai hartako maisu-maistrek izugarrizko ahalagina egin genuen geure burua birtziklatu eta gauza berriak ikasteko. Hala ere, aniztasuna edo sexu-joera bezalako kontzeptuak arrotzak zitzaizkigun

eskolan. Premiak askoz ere xumeagoak ziren orduan. Gure xede nagusia hezkuntza azkarragoa, alaiagoa eta atseginagoa lortzea zen, eta gure kezkarik handiena dislexia edo distrofiei aurre egitea.

Ezin izan dut ahaztu lehenengo ikasle autista. Aurretik inork ez ninduen ezertaz ohartarazi. Mutikoa hormetan idazten hasten zen bat-batean eta nik ez nekien zer egin. Autismoa bazenik ere ez nekien eta mutiko harekin zelan jokatu, ez nuen asmatzen. Azkenean neure kasara ikasi behar izan nuen. Ahalegin horiei guztiei euskara gehitu behar izan genien. Izan ere, irakasle ez euskaldunok hizkuntza ikasi behar izan genuen Frankismoaren azken denboretan eta ondorengo urteetan. Gogorra zen lanetik atera eta euskara ikastaldi trinkoetan sartzea. Horrek eragina izan zuen noski, familia bizimoduan. Eta, hala eta guztiz ere, ez ginen arranguratzen ikasteko irrikan geunden eta.

Sexu-joera edo aniztasunaren inguruan oso berandu hasi ginen gure eskolan, eta hasi antzerki talde bati esker hasi ginen. Txotxongilo talde bat zen, homosexualitatearen gaineko unitate didaktikoa lantzen ari zena. Ordura arte eskolan ez genuen gaiari buruz ezer entzun. Ezertxo ere ez. Orduan ez zegoen ezer, eta orain ere askorik ez dago. Oraindik *bulliyng* homofobiko asko dago gure eskoletan eta hezkuntza agintariek ez diote arazoari irmotasunez heltzen. Oraindik okerrago dena, nire ustez atzera egin dugu azken urteetan.

Horrekin ez dut esan nahi ezer egin ez denik. Hori ez. Egin gai honen gaineko ikastaro trinko bereziak egiten dituzte, baina orainik egindako ahalegina eskasa dela iruditzen zait. Eta hori gaurko neska-mutilak ez direla batere tuntunak. Aspaldi jaso nuen ezusteko ederra mutiko baten aldetik. Halako batean maisu-maistrok paparrean xingola zuria jartzen hasi ginen gizonezko batek andrazkoa hiltzen zuen bakoitzean. Egun hartan mutikoak xingolarik ez eramatea aurpegiratu zidan.

- Baina gaur ez badute emakumerik hil…
- Emakumerik ez, baina gizonezko batek bere mutil-laguna akabatu du.

Dena esanda zegoen. Neska-mutikoak jabetuta daude badirela bestelako harreman motak, bestelako bizimoduak eta beraiek prest daude horiek guztiak diren bezala onartzeko.

Araban, 2015eko irailean

ISABEL

• Niretzat, bat eginik joan dira beti borroka politikoa eta bizitzan egin ditudan aukera pertsonalak

Isabel naiz, jaio, Andaluziako mendiko herri txiki batean jaio nintzen 1952 urtean eta 14 urte nituela etorri nintzen Euskal Herrira, Barakaldora Ezkerraldera. Umetan jabetuta nengoen ez nintzela lagunen modukoa. Bitxia nintzen ez nituen eta mutilak atsegin. Horren neutroa nintzen lagunek nitaz baliatzen zirela mutilei mezutxoak bidaltzeko. Nik pentsatzen nuen panpinak ez nituela atsegin biziegia nintzelako eta, hargatik, nahiago nituela mutikoen jolasak. Ordurako *mari-motrailu* puska ederra eginda nengoen. Niretzat munduko gauzarik politena mutilekin futbolean jokatzea zen eta 12 urte nituela ni nintzen herrian futbolean mutilek onartzen zuten neska bakarra. Bazekiten beraiek baino hobeto jokatzen nuena. Gure aita, ikusten ninduen bakoitzean, sutan jartzen zen, errieta egin eta etxera bidaltzen ninduen:

- Hoa etxera, hartu jostorratza eta titarea eta ikasizan probetxuzko emakume izaten.

Halaxe esaten zidan eta nik ez nuen ulertzen zer esan nahi zuen *probetxuzko emakume* esaten zuenean. Beti sentitu nuen beste neskekin alderatuz gero, oso-oso desberdina nintzela. Haiek mutiletan egitea besterik ez zuten nahi, edozein nerabek nahi izango zuen moduan, jakina. Nik ez. Lagunek estutu egiten ninduten mutilekin ibil nedin eta ni ernegatu egiten nintzen mutilak ez nituelako batere gogoko. Une hartan ez mutilak, ez neskak. Gogoan dut, hori bai, eskolan gustuago egoten nintzela maistrekin maisuekin baino. Orduak ematen nituen eskola aurreko kalean maistrak noiz pasako zain, haiek pasatzen ikustearen plazer hutsagatik. Atsegin nuen, baita, kanpotik etorritako neskekin egotea ere. Haiek ez zeuden herriko neskak bezain baldintzatuta etxekoengatik. Udan oporretan etortzen ziren neska haiek, bazekiten amets egiten eta ez zuten lotsarik heldutakoan artistak izango zirela aitortzeko. Eta prakak jazten zituzten. Horrek liluratzen ninduen ni, gure herrian, 50. hamarkadan, neskek debekatuta baikenuen prakak erabiltzea. Nik, etxean, nebaren prakak janzten nituen jolasean ibiltzeko. Gainontzeko neskekin alderatuz gero, neu ezberdinan nintzen, bai, baina horrek ez ninduen kezkatzen.

Eskolako garai haietatik oso gogoan ditut egiten nituen *piperrak*. Marcelino eta biok elkartu eta errekara joaten ginen karramarroak harrapatzera. Eskolan ia ez ninduten ikusten. Oinarrizko Hezkuntza ez nuen amiatu eta ondo irakurtzen eta idazten, urte dezente beranduago ikasi nuen alderdi politikoan. Bitxia zen oso egoera. Mutilek izu-

garrizko jazarpena zuten eskolara joateko, baina neskok huts egiten bagenuen ez zen ezer pasatzen. Etxean, amari laguntzengeundela pentsatuko zuten.

Etxean 15 neba-arreba ginen. Hamar urte nitueenean ez zitzaidan tokatu txikienak zaintzea. Nire eginbehar bakarra eguerdian etxera bazkaltzera eta gauean lotara joatea zen. Euskal Herrira heldu nintzenean ume moko bat nintzen, menditik sekulan jaitsi gabekoa eta itsasoa ezagutzen ez zuena. Barakaldon txundituta bizi nintzen. Ezin nuen ulertu nola egiten zuen horrenbeste jendek elkarrekin bizitzeko gure auzoan. Foru Plazako bazter batean jartzen nintzen eta orduak ematen nituen jendea pasatzen ikusten. Non biziko ote dira, zer egingo dute…pentsatzen nuen.

Gure familiatik amona izan zen Barakaldora etorrri zen lehena, 50. hamarkadan. Seme-alaba mordoa ekarri zuen berarekin. Gure aita zena zendu zenean, anaia zaharrek hartu zuten onantzako bidea eta bertan ezkondu. Ni oso gazte etorri nintzen, koinatu batek haurdunaldi latza izan zuzenez, laguntza behar zuelako etxean, senarra eta beste bi seme-alaba gobernatzeko. Amak, horregatik utzi zidan etortzen. Umea jaio zenean baina, nik ez nuen Andaluziara itzuli nahi eta berton geratu nintzen. Ama izan zen etortzen azkena, etxeko txikienak hartuta.

Klase borrokan, buru-belarri

Garai hartan askori gertatu bezala, borrokari lotu nintzaion 1968. urtean. Hasi, JOC elkartean hasi nintzen, Langile Gazte Katolikoak izeneko taldean, alegia. Lanean, neskame hasi nintzen. Langintza horretan nenbilela emakumeon egoeraren gaineko kontzientzia hartu nuen. Beste hainbat neskamerekin elkartu eta gure eskubideen aldeko borrokan hasi ginen. Urte asko borrokatu genuen gaur egun lortutakoa eskuratzeko: Lan Hitzarmena. Hura izan zen mugimendu politikoekin izan nuen lehen harremana. Alderdietako jendea ezagutu nuen etanire bidea egin nuen: hasteko EMKn izan nintzen (Euskadiko Mugimendu Komunista), ondoren LKIn sartzeko, Liga Komunista Iraultzailean. Azken Haiek trotskistak ziren. Hor barruan urte dezente egin nituen. Hori izan zen nire ibilbide politikoa.

Fabrikan beharrean hasi nintzenean, geroxeago, borroka sindikalari lotu nintzaion, artean Langile Komisioak (CCOO) sortu gabe zeuden. 70. hamarkadako hasierako urteak ziren, nik 21 urte nituenean. CCOO sortu zenean han sartu nintzen, buru-belarri sartu gainera. Sindikatuaren barruan emakumeok jasaten genuen zapalkuntza salatzeko ahalegin berezia egin nuen, beste hainbat emakumerekin batera. Denboraldi labur batez Emakumeen Idazkaritzako kide izan nintzen. Hor ezagutu nituen geroxeago

Bizkaiko Emakumeen Asanblada sortuko zuten emakumeak. Hori izan nuen langile mugimenduaren barruan egindako bidea. Fabrikatik bota nindutenean, lantegi txiki batean hasi nintzen. Han bertan *iraultza egitea*, orduan esaten genuen bezala, pentsaezina zen, eta zerbaitetan lagundu asmoz, Auzo Elkartean hasi nintzen lanean.

Ordurako, izugarrizko hutsunea nuen barruan ez bainintzen sekula maitemindu. Horrexegatik, estimu handiz gogoratzen ditut 1977an Auzo Elkartean ezagututako emakumeak. Lesbianak zirela esan eta haiekin bat egitera gonbidatu ninduten. Ni, artean, alderdiko kide nintzen eta haiek, berriz, alderdietatik kanpo ibiltzen ziren. Hala ere beraiekin hasi nintzen lanean. Liburuak eta txostenak pasatu zizkidaten irakurri eta ikasteko eta haiekin hasi nuen neure burua argitzeko prozesua.

Denbora horretan, gainera, ni oso gaizki nenbilen. Burkide batekin bizi nintzen, pisu berean, eta emakume hartaz maiteminduta nengoen. Txoro-txoro nenbilen alderdikide harekin. Inoiz ez zitzaidan burutik pasa gure artean ezer jazoko zenik. Ez dut esango emakume hark fisikoki erakartzen ez ninduenik, baina neure burua engainatzen nuen, pentsatuz, harekin tontotua nire buruan ez baiztegoen gizonik. Auzo Elkarteko emakumeek ireki zizkidaten begiak. Haiekin ikasi nuen normala zela gertatzen ari zitzaidana. Penaz, etxez aldatzea erabaki nuen. Burkidearekin hitz egin beharra nuen aldaketaren berri eman eta erabakia zergatik hartu nuen aitortzeko. Guztia kontatu nionean txundituta utzi ninduen. Hura bai hura, lagun mina:

- Horrenbeste maite zaitut eta zuk nahi izanez gero prest naukazu txortan egiteko.

Gehiegi izan zen niretzat eta etxez berehala aldatu nuen. Ordurako nik banekien zer gertatzen ari zitzaidan vaina, harrabotsik gabe bizi nuen gertatzen ari zitzaidana. Gaur, nire jarrera hura ulertzeko, garai hartako errealitatea ezagutu behar da. Neure burua iraultzailetzat nuen, borrokan muturreraino sartuta nengoen eta niretzat, orduko hartan, norberaren desio edo premien gainetik borroka koletktiboa zegoen. Horrenbeste arazo genituen borrokatzeko, kasik ez nuela niretzako denborarik aurkitzen.

Mugimendu feministan eragin

Alderdian ez genuen anitztasun sexualaz hitz egiten. Emakumeak askatzearen alde borrokatzen ginen baina, borroka feminista herri osoa askatzeko borroka nagusiaren zati bat zelako. Auzo Elkarteko emakumeok taldea osatu genuen feminismoaz hitz egiteko. Alderdikideek horren berri izan zutenean, talde horretan eragina izateko beharraz teorizatzen hasi ziren. Feministak burges-txikiak ziren ustez, alderdiko gizonen

ustetan. Usteak erdiak ustel. Alderdietan ginen emakumeok guztiz bestelako erabakia hartu genuen: inon eragitekotan, alderdietan eragin behar genuen, gure burkideek borroka feministaren egiazko garrantziaz jabetu zitezen. Emakumeen Asanbladan sortutako eztabida oro guk alderdira eramaten genuen, bakoitzak berera. Horren ondorioz, alderdien baitan emakumeen taldeak sortu genituen borroka feministaren aldarrikapenak alderdirenak ere izan zitezen.

Oso gogorrak izan ziren guretzat alderdiko gizonekin izandako ika-mikak. Eta ez gizonezko burkideekin bakarrik. Mugimendu feministan alderdietatik kanpo ziren emakumeekin liskar ugari izan genituen ez baizuten ulertzen alderdietako emakumeok generaman konpromiso bikoitza. Horren kontura hamaika istilu izan genituen Emakumeen Asanbladan.

Ni bezalako lesbianak ezagutuz

Mugimendu feministaren barruan ni bezalako lesbiana ugari ezagutu nituen. Haietako batzuk Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zuten Asanbladaren baitan eta horrek eragin handia izan zuen mugimenduan. Asanbladak, bere egin zituen Kolektiboaren aldarri eta eztabaidak. Teorian bai, behinik behin. Izan ere, alderdian gertatu bezala, Asanbladako emakumeek horren arazo zehatzaren gaineko erredukzionismoa egiten zuten. Gogoan dut Asanbladan nortasun lesbianoaren aldarria egiteko beharra proposatu zenean, inor gutxik zekien zer zen hori eta zertarako aldarrikatu behar genuen. Gai horren inguruan eztabaida bizi-biziak izan genituen.

Garai hartan LKI barruan oso emakume interesgarriak ezagutu nituen. Haietako batzuekin maitemindu egin nintzen, eta haiek nirekin. Alderdiaren egunerokotasunean ez zitzaidan zaila egin ulertzen zuten emakumeak atzematea. Eta borroka gune horietatik guztietatik kanpo, *giro*ko tabernak ere bagenituen bestelako emakumeak ezagutzeko. Klandestinitate garai haietan *giro*ko tabernak oso garrantzitsuak izan ziren sexuan bestelako aukera egina genuen guztiontzat. Emakumeontzako, esate baterako, *Lamiak* zen tokirik esanguratsuena. Hura izan zen lehenengo tokia gu geu izateko aukera eskaintzen ziguna. Zerbitzariak gu bezalakoak izanik, kafetegian etxean bezala egoten ginen; edo etxean baino hobeto. Geroago ireki zituzten *Bizitza* eta *Canela* eta beste hainbat taberna, mistoak izanik babesa eskaintzen zigutenak. Zentzu horretan, izugarrizko garantzia izan zuen guretzat EHGAMek zabaldutako egoitza, hilean behin gure festa propioak egiteko aukera ematen baiziguten. Hura zen gure txokoa.

Niretzat, bat eginik joan dira beti borroka politikoa eta bizitzan egin ditudan aukera pertsonalak. Hargatik esan dezaket ez nintzela inoiz inongo armairutan ezkutatu, ezta etxekoekin ere. Gogoan dut 30 urte bete nituenean etxekoei jakinarazi niela lesbiana nintzela. Ederki jo zidaten adarra:

- Egon hadi lasai, herentziazkoa izan behar din eta. Hire aitona Enrique mutil batekin harrapatu ziaten ohean.

Iseka ederrak egin zituzten nire kontura. Ni lasaitzeko modu bat izan zen hura, arazoari garrantzia kendu nahian, edo. Etxekoekin oso berandu hitz egin nuen, bai. Izan ere, 18 urte bete berri etxetik alde egin nuen eta Francoren kontrako borroka klandestinoan sartu nintzen. Etxekoengatik egin nuen. 15 neba-arreba ginen eta etxean gordetzen nituen paperak arriskuan jartzen zituzten haiek guztiak. Hargatik, etxetik alde egin eta klandestinitatean bizitzea erabaki nuen. Etxean ez zuten nire berririk izan diktadorea hil zen arte.

Nire aitortza baino lehen, etxean, ez zen gaia inoiz aipatu. Hala ere ez ninduten inoiz ezkondu nendin edo mutila har nezan estutu. Koinata bat astunegi ibili zitzaidan denboraldi batean noiz ezkonduko nintzen galdezka eta etxekoekin hitz egitea erabaki nuen. Beraz, baten batek zerbait galdetzen zuenean zera erantzuten nien, zuzen zuzenan: *Mutilak niri bost, neskazale porrokatua nauzue*. Etxekoekin, neba-ahizpekin ez nuen arazorik izan. Ospakizunen bat egiten zuten bakoitzean unean uneko neska-laguna ere gonbidatzen zuten, gure arteko harremana dudan ipini barik. Atzetik gaizki esaka ibili ziren, edo ez, ez dakit. Aurrez aurre, inoiz ez. Eta orain hainbat ilobek gay direla esan digutenean, oraindik gutxiago. Normaltasun osoz onartzen dute.

Maitasuna kalean adieraztegatik, erasoa

Lanean jakin bazekiten, baina inork ez zuen tutik esaten. Lankideek nahiago zuten gaia saihestu eta ni horrekin, ondo. Ez nion inori kontatu beharrik norekin oheratzen nintzen eta norekin ez. Kalean, aldiz, arazoak izan nituen, 80. hamarkadan, neska-lagunari maitasun keinuren bat egin izanagatik. Batzuk pentsatzen zuten edozein astakeria esateko eskubide osoa zutela. Behin, Zazpi Kaleetako taberna batean geundela, aulki batekin eraso egin nahi izan zidaten. Taberna ez zen *giro*koa, eta neska-lagunari musu bat eman nion, besterik gabe. Erasotzaileari aurre egin nion:

- Hi burutik jota hago, ezta? –esan nion.

Hain seguru nengoen eta hain garbi neukan eskubide osoa nuela,ezen inoiz ez nintzela kikildu.

Gure kuardrila Emakumeen Asanbladako eta Matarraska emakume gazteen taldeko kideek osatzen zuten. Elkarrekin borrokatzen genituen matxismoa eta homofobia egunez, eta elkarrekin gozatzen genuen Bilbo la nuit zoragarri hura. Nik borrokan topatu nituen lagunak eta bikotekideak. Horrek ez zuen esanahi, jakina, noiz edo noiz feministak ez ziren emakumeekin ligatzen ez genuenik. Larrua larru truk izaten zen hura, amaitutakoan berehala ohartzen bainintzen hura eta ni bi mundu oso ezberdinetan bizi ginela. Gu Iraultza gora eta Iraultza behera genbiltzan bitartean, emakume haiek nahikoa zuten zirena etxean ezkutatzen. Gu berriz horren agerikoak ginen zenbait girotan, emakume haiek izututua eta arrapaladan aldendu ohi zirela gugandik.

Zenbait lege aurreratuegiak daude oraindik

Gauzak gaur asko aldatu dira, eta onerako. Askotan pentsatzen dut badirela jendearen onarpenetik urrunegi dauden lege batzuk, aurreratuegi daudelako. Oraindik bada bere burua nabarmendu nahi ez duenik, lagun hurkoak esango duenaren beldur dira eta. Egia da gaur ez dela politikoki zuzena gay gizonak eta emakume lesbianak arbuiatzea, baina oraindik asko dugu egiteke. Badira urte dezente bikote homosexualen ezkontza legeztatu zutela. Ez niretzat, hala ere. Ez naiz ezkondu ez naizelako bikote itxiak edukitzearen aldekoa. Bizi ere, ez naiz inoiz neska-lagunarekin bizi izan. Nire txokoa nirea dela pentsatu izan dut beti eta orain arte ez dut jarreraz aldatzeko beharrik sentitu. Onartu behar dut, hori bai, nik neuk edozer eginda ere, bikote homosexualek ezkondu ahal izatea izugarrizko aurrerapena izan dela.

Egungo lesbiana gazteak ikusten ditut eta... ez diet batere inbidiarik. Nik aukera izan nuen neure bizitza neure kaxara egiteko, inoren aginduetara makurtu barik. Ez etxean, ez lantegian, ez kalean, ez inon, ez naute ezertara behartu. Eta hori oso garrantzitsua izan da niretzat. Baina ondo dakit nire bizimodua berezia izan dela oso, emakume askok ez zutela nik izan nuen zortea izan. Izan zen oso-oso gaizki pasa zuenik lesbiana izateagatik, etxetik bota zutena edo lagunek baztertu zutena horregatik. Batzuetan pentsatzen dut egungo gazteak ez direla ohartzen izan duten zorteaz. Ez ditut borrokan ikusten lortutako eskubideak defenditu eta bide berriak jorratzeko. Beldur naiz ez baditugu eskubide horiek guztiak borrokatzen ez ote ditugun galduko, lan munduan gertatu zaigun bezala. Beldur hori da gehien kezkatzen nauena.

Bizkaian, 2015eko azaroan

TOÑO

- **Alderdikideek ezin zuten ulertu ni, metalgintzako langilea eta enpresa batzordeko kide izanik, gay izatea**

Ni Toño naiz, ia 69 urte ditut une honetan, eta neure burua azaltzeko zerbait esan beharko banu, EHGAMkide naizela esango nuke. Leon probintziako (Espainia) herri batean jaioa, Euskal Herrira 17 urterekin etorri nintzen. Ezagutzen nautenei bitxia gerta dakieke niri hau entzutea baina, harreman homosexualen kontrako aurreiritziak izan nituen gaztetan. Ez da batere harritzekoa. Garai hartan gazteen artean oso ohikoak ziren jarrera zurrunak. Are gehiago, gaur *homosexual* berba erabili dut, baina orduan *maritxu* esaten nuen lasai-lasai, hori baitzen zera horretan hitz egiteko erabiltzen genuen berba. Aurrekari horiekin erraz ulertuko da nire txundidura, sexu berekoak gogoz eta griñaz begiratzen hasita nintzela ohartu nintzenean. 24 urte nituen orduan.

Gure aitak bazituen ezkerreko pentsamolde sakon-sakonak. Hala ere herri txiki batean bizi ginen eta diktadurapean, ixilik egon beharra zeukan. Hargatik, modu tradizionalean hezi zituen seme-alabak, Elizak eta garaiko Eskolak agindu legez. Gogoan dut oraindik Franco gure herrira etorri zen eguna. Neska-mutiko guztiak kamioi batean jarri gintuzten eta diktadoreari kantatu behar izan genion. Frankistak jaun eta jabe ziren gure herrian.

Durangora 1965 urtean heldu nintzen. Hemen ere ezin zen askorik hitz egin. Franco hil ostean baina, gauzak mugitzen eta aldatzen hasi ziren. Urte haietan nik ez nuen griña homosexualik edo, gutxienez, ez nintzen horretaz ohartzen. Soldadutzan, esate baterako, ez dut gogoan beste soldaduen gorputzak begiratzen nituenik. Pentsatzen dute nire baitan hala izango zela, izango nuela grin fustraturen bat, baina benetan diot, ez nintzen horretaz ohartzen.

Andregaia hartu beharko nuela pntsatuz hazi nintzen, andregaia hartu egin behar zelako, eta egunen batean ezkondu egingo ginela pentsatzen nuen. Orain,aldiz, umetan edo nerabe herriko mutilen gorputzekin amets egingo nuela pentsatzen dut, baina berriro diot, horrela izan bazen oharkabean izan zen.

Begirada batek aldatu zuen nire bizitza. Bilboko *Arriaga* antzokiko kafetegian mutil batek luzatutako begirada izan zen, eta egun hartatik aurrera jazotako guztiaz ez naiz damu.

Nire bizitza aldatu zuen begirada

Egun hartan *Arriaga*n lagun batekin geratuta nengoen. Gure asmoa dantzalekura joatea zen, elkarrekin. Lagunak huts egin eta ez zen inoiz agertu. Han nengoela, mutil bat begira geratu zitzaidan. Begirada hark bihotza-ukitu zidan, erabat hunkitu. Mutil harekin hipnotizatuta bezala geratu nintzen eta jakin barik ez nor zen, ez nora zihoan, ez zer nahi zuen, atzetik joan nintzation Adiskidetasun kaleko taberna batera iritsi arte. Mutila nigana etorri eta hizketa bitartean zirriak egiten zizkidan hanketan. Bera, ordurako, sutan zegoen, kitzikatuta. Hankartekoak ilinti ederra zirudien, gogor-gogor eta bero-bero. Ni dardarka nengoen. Ni lasaitzen ahalegindu zen eta Autonomia kaleko beste taberna batera joan ginen, *Oporto* izeneko tabernara. Mutilak egundoko atxurra harrapatu eta arrastaka atera behar izan zuten tabernatik. Hor geratu nintzen ni, bakar-bakarrik. Halako batean, gure berbaldia entzuten egon zen beste gizon bat galdezka etorri zitzaidan:

- Hi, Toño haiz, ezta?

Lehen galdera xume horren atzetik beste bat etorri zen, ez hain xumea:

- Nire etxera etorriko?

Horrela hasi zen beste gizon batekin inoiz izango nuen lehenengo txortaldia. Haren etxera joan ginen, larrua jo genuen eta, amaitu genuenean, nik halakoetan ohikoa izaten den jarrera hartu nuen: arrapaldan atera nintzen etxe hartatik, lotsaren harrak sabela jaten zidala. Lehen txortaldi hura gozoa izan zen oso, hori onartzeko prest ez nengoen arren. Egun hartatik aurrera niretzat dena aldatu zen. Kalean gizonei botatzen nien begirada, ez emakumeei. Eta begiratze hutsetik urrats gehiago egin nituen. *Giro*ko tabernetan murgildu nintzen erabat, gizon dezente ezagutu nituen eta Elorrioko kuadrila heterosexuala utzi egin nuen.

Okerrena ez zen hori izan. Lehen txortaldi hura gertatu zenean hitzordua nuen herriko emaztegaiarekin, gurasoen etxera joango nintzaion alabarekin ezkontzeko mandatua egitera. 15 egun beranduago izango zen zita. Urte haietan, eta gurea bezalako herri txikietan are gehiago, ezkontzeko mandatu egitea ospakizun handia zen, eta 15 egun beranduago nik egin beharrekoa jada antolatuta zegoen. Adorea ez dakit nondik atera nuen. Ordura arte emaztegai izan nuenari gutuna idatzi nion. Ez dut gogoan zer idatzi nuen baina gure artekoak hor amaitu ziren.

Gerora mutil dezenterekin jo nuen larrua, baina inoiz ez, sekula ez begi-kolpe harekin nire bizitza aldatu zuen mutilarekin. Ederra zen oso, baina mozkorraldi hark gu bion artean egon zitekeen zer edo zer zapuztu zuen. Maiz topatu dut kalean, beti agurtu dugu elkar, egun hura gogoratu izan dugu, baina gure artean ez da inoiz sexurik egon.

Gay *giro*an buru-belarri sartuta nengoela, behin, Durangoko festetan, Bilbora jaitsi nintzen orduko kuadrilarekin. Lagun guztiek ulertzen zuten eta maiz ibiltzen ginen elkarrekin mutil ehizan. Egun hartan *Golan Fruits* tabernara joan ginen, *Charcu*k orduan zuen tabernara. Gure zoritxarrerako gau hartan Poliziaren sarekada izan zen. Guztiak atxilotu gintuzten. Indautxuko komisaldegian izan gintuzten atxilo, gau osoan. Iseka nahi beste egin ziguten, gurekin jolasean ibili ziren biharamunean banan bana askatu gintuzten arte. Hori izan zen inoiz sufritutako lehenengo atxiloaldia, eta bakarra.

Borroka gogorra izan zen, baina oso ederra

Une hartan erabaki nuen gauzak aldatzeko zerbait egin beharra zegoela eta EMKn sartu nintzen, Euskadiko Mugimendu Komunistan. Hor barruan konturatu nintzen ezkerreko alderdietan ez zirela falta aurreiritzi homofobikoak zituzten kideak. Nik bezala ulertu egiten zuten hainbat kiderekin elkartu eta alderdiko gizonengan eragiteko lanean hasi ginen. Oso borroka gogorra izan zen hura, baina ederra ere bai. Alderdiko emakume batek behin aipatu zidan Bilbon bazela askapen homosexualaren aldeko mugimendua sortu nahian zebilen jendea. Haiekin harremanetan jarri eta guztiok batera sortu genuen EHGAM, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua. Hasiera hasieratik jakin nuen hura zela nire tokia.

EMKk, alderdi bezala, ez zuen homosexualitatearen gaineko jarrera zehatzik. Kide batzuk, emakumezkoek batez ere, bat egiten zuten gay mugimenduarekin, aurreiritzirik gabe. Beste batzuk, alta, ez. Alderdikideei gaiaz eztabaidatzea proposatu nienean, asko eta asko txundituta geratu ziren. Ez zuten ulertzen, ez zitzaien burutik pasatzen, ni metalgintzako langilea eta enpresa batzordeko kidea, gay izan ninteekeenik. Antza, nik ez nituen gaytasunaren estereotipoak edo gay izateko baldintzak betetzen. Gaur halakorik entzutea barregarri gerta dakiguke, baina garai haietan gauzak hala gertatzen ziren. Estereotipoek agintzen zuten, eta asko.

EHGAMen erakunde bezala egin genuen lehenengo gauza, edo lehenetarikoa, manifestazio bat izan zen. Marjinatuen Koordinadorako kide ginen eta COPEL (Borrokat-

zen duten Presoen Koordinadora) erakundearekin batera, Arriskugarritasun Legearen kontrako protestaldia deitu genuen. Zabalburutik abiatu ginen eta gure asmoa Areatzan amaitzea zen. Nahi bai! Abandoko geltokiaren ondotik gindoazela, grisak (Polizia Armatua) oldartu zitzaizkigun eta egundoko egurra eman ziguten.

Durangoko EMKko taldean baziren gizon gehiago armairutik ateratakoak. Haiekin eta herriko beste batzuekin gay mugimenduko taldea eratu genuen. Haien guztien ordezkari neu joaten nintzen, astean behin, Bilbora, EHGAMeko batzarretara. Bilerak orduan Areatzako *Boulevard* kafetegian egiten genituen.

Ustekabeko outinga *Egin*eko azalean

Arestian iradoki bezala, behar metalgintzako lantegi batean egiten nuen eta enpresa batzordeko kide nintzen. Langile nintzen aldetik lankideen jarrera matxistak sufritzen nituen. Behin EHGAMek Donostian antolatutako manifestaziora joan nintzen, Imanolekin (Álvarez) batera. Bilbotik lastozko kapelak jantzita abiatu ginen. Bidean euria egin zuen baina, eta Donostira heldu ginenerako buru gaineko haiek kapelak baino pamelak ziruditen. Kapelei lore bana jartzea otu zitzaigun eta horiek buruan jantzita joan ginen manifestazioan. Biharamunean *Egin* egunkariak azalean zekarren manifestazioaren gaineko albistea: *Homosexualek Donostiako kaleak hartu dituzte*. Eta azaleko argazkian, alderik aldeko argazki hartan Imanol eta biok. Nik *Egin* egunkaria lantokira eraman ohi nuen eta aldageletako armairuan uzten nuen, lankideek irakurri zezaten. Egun hartan azala begiratu barik utzi nuen egunkaria eta lanean hasi nintzen. Halako batean izugarrizko zalaparta piztu zen fabrikan. Lankideek niri begiratu eta barre egiten zuten. Egia aitortu behar badut, argazki horrekin lankideen errespetua lortu nuen. Egun hartatik aurrera ez nuen neure burua begirro ezkutatu. Inoiz ez.

Etxekoek ere egunkariagatik jakin zuten. Durangon anaia-arreba birekin bizi nintzen eta gauean heldu nintzenean arrebak esan zidan:

- Hara, hemen zetorrek etxeko gay gizonal.
- Bai, -erantzun nion- *argazkian oso guapo atera ninduten.*

Hori izan zen guztia. Etxean ez naute sekula ukatu, sekula ez dut errefusarik izan lantegian lankideen aldetik.

Onartu behar dut izugarrizko suertea izan nuela beti. Etxean ez zidaten inoiz ezer aurpegiratu eta guztiek dakite, nik gay naizenik sekula esan ez diedan arren. Egunkaria-

gatik jakin zuten, eta onartu. Gure aita, 1972 urtean zendu zenak, behin bai esan zidan:

- *Nik bazekizkiat heuk esaten ez dituken hainbat gauza.*

Ez zuen gehiagorik esan. Orain, hark beharbada zerbait sumatzen zuela pentsatzen dut, nik inoiz pentsatu gabeko zera horietaz zerbait bazekiela. Etxean, bestalde, ez ninduten inoiz estutu ezkondu eta familia osatu nezan. Zentzu horretan gurasoak oso liberalak ziren.

Mutil ehizan *Botxo*ko kaleetan

Gay tabernak ireki aurretik, Bilbon bazeuden mutiletan aritzeko nolabaiteko permisibitatea eskaintzen zuten tabernak. Edo ehiza, bestela, kale gorrian egiten genuen. Balcon de la Lola izeneko tokia, tren geltokiaren azpian, aproposa zen mutilak ezagutu eta hor bertan larrua jotzeko. Edo Areatzako aparkalekuan –nik hor mutil dezente ezagutu nituen-, edo *Opera*n, *Arriaga*ko kafetegian. Azken hau jendetsua zen, oso. Casilda Iturrizar Parkean ere bazen mugimendurik, baina hara ez nintzen joaten. Komunetara berriz, asko. *Bonbonera* bezala ezagutzen genuen eta hor barruan denetarik egiten genuen. Morbo handiko lekuak ziren haiek. Komun publikoetan gizon piloa ibiltzen zen harrapaketan. Txiza egiten ari zinenaren planta egin eta ondoan zenituen gizonei erreparatzen zenien. Besteak nora joan edukiz gero, primeran. Bestela autoan moldatu behar izaten genuen. Gaur egun ere ehiza handia dago komunetan, gero eta *bonbonera* gutxiago dagoen arren. Orduan mordoa zegoen hirian.

Egia da urte haietan harreman homosexualak legez kanpo zeudela eta indarrean zela Arriskugarritasun Sozialaren Legea. Agintariek aipatu jardun haiek guztiak zigortu nahi zituzten lege horrekin. Baina egia da, baita ere, Franco hil ostean eta hil aurreko azken urteetan, aukera handiak genituela nahi genuena egiteko.

Jende guztiak zekien aipatu lekutan zer jazotzen zen. Poliziek jardun horiek guztiak galarazi nahi izan balituzte, benetan nahi izan balute, nahi beste sarekada egitea zeukaten. Oso ondo zekiten nortzuk ginen eta zertan genbiltzan. Gogoan dut ulertzen zuen kuadrilarekin usu joaten ginela Torremolinos aldera. Zer zen hura! Artean Franco bizirik, Torremolinos *Sodoma* eta *Gomorra* zirudien.

Mutiletan egiteko bestalde, zinemak zeuden. Nik Bilbon, hainbat ezagutu nituen. Bata *Vizcaya* aretoa zen, San Frantzisko kalean zegoena, Cantalojas zubiaren ondean. Gogoan dudan bestea, *Ideal* aretoa zen. Aretoko goikaldea *oilotegi* ederra izaten zen.

Eta Imanolekin (Alvarez) Gorte kaleko kabaretak ezagutu nituen. Hor bertan, Harrobi plazan, gizon homosexual asko biltzen zen, ustez prostituten bila zebiltzan gizonak harrapatu nahian. Eta jakina harrapatzen zituztena!

Lagun heterosexualak bazterrean geratu ziren

Gay munduan buru-belarri murgilduta nenbilela, Elorrion nuen koadrila heteroseuxalarengandik aldenduz joan nintzen, apurka-apurka. Kosta zitzaidan, kuadrilako batekin maiteminduta nengoen eta. Hura maitasun platonikoa izan zen, mutilak ez baitzuen ulertzen. Gutxira Durangoko beste kuadrila batekin hasi nintzen. Durangokoak ez ezik, Eibarkoak ere baziren koadrilako mutilak. Den-denak gay ziren. Zapatu gauetan askotan Biarritz aldera joaten ginen, bertako dantzalekuetara. Gau haietatik gehien gogoratzen dudana *Alfonbraren Dantza* da. Zoramena zen hura. Pista erdian alfonbra bat ipintzen zuten, gizonezko bat gainean eta haren inguruan egiten genuen dantza. Musika etetzen zutenean, alfonbrakoak inguruko bat aukeratu eta musu bat ematen zion. Besteak ez bazituen ezpainak kentzen eta mihiarekin erantzuten bazuen, egina zegoen, haiek biek txortan egingo zuten. Alta, musuari masaila ipintzen bazion, akabo.

Kuadrila horrekin joaten nintzen Torremolinos eta Valentzia aldera, mutiletan egitera. Debekatuta egongo zen, baina dantzalekuak gainezka zeuden, txortan egiteko prest zeuden hamaikatxo gizonez beteta. Garai haietan *Otxoa*k Torremolinoseko *Poseidon* dantzalekuan kantatu ohi zuen. Hura bai neurriz kanpokoa, hura! Euskal Herrian zuhurragoak ginen, lotsatiagoak. Eta horrela segitzen dugu. Gaur Bilbon ia ez dago *giro*rik. Hirian ia ez dago gay eta lesbianentzako berariazko tabernarik. Niri bost, beti izan bainaiz guetoaren kontrakoa, baina *giro* apur baten falta somatzen dut.

EHGAMeko neskak, bazterrean

EHGAMeko hasierako urteetan gure asmoa eskubideen gaineko borroka garatu eta egitea zen. Teorizatu egin nahi genuen eta gauza asko egin. Bagenekin egin beharrekoak guk geuk egin beharko genituela, inork ez baitzigun ezer oparituko. Taldean, hasiera batean, neskak eta mutilak elkarrekin ibili ginen. Halako batean baina, neskek euren bidea egin nahi zutela eta horretarako euren taldea sortuko zutela esan ziguten. Ni ados egon nintzen nesken asmoekin. Bat nentorren beraiek egindako kritikarekin: EHGAMen ia ez genuen lesbianismoaz berbarik egiten. Egia zen, gainera, gay

gizonok guretzat hartzen genuela bai denbora, bai taldea, bai dena, eta neskak bazterrean utzi ohi genituela. Nire ustez emakumeek asmatu egiten zuten ESAM sortu zutenean. Berdin geroago, talde hura desegin eta Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zutenean.

EHGAM bezala gure apusturik handienetako bat *Txoko Landan* irekitzea izan zen. Egoitza berehala bihurtu zen Bilboko gay eta lesbianen biltoki. Ez bilbotarrentzat bakarrik, baita Euskal Herriko eta, nik esango nuke, Estatu osoko gay eta lesbianentzat ere. Izan ere, bertan egiten genituen maiz COFLHEren (Espainiako Estatuko Askapen Homosexualerako Fronteen Koordinakundea) batzarrak. Esango nuke, zalantzarik gabe, Kataluniako FAGCekin batera (Gay Askapen Frontea) EHGAM izan zela garai hartan Estatuko talderik indartsu eta eraginkorrena. Baina hasi moduan amaitu zen taldea. Jendea nekatu egin zen eta gauzak aldatu zirenean batzuk, antza, den-dena lortuta zegoela eta ez zegoela gehiago borrokatu beharrik pentsatu zuten. Horren ondorioz, gaur, taldea txikia eta eragin eskasekoa da.

Eskubide guztiak pertsona guztientzat

EHGAM barruan beti egin nuen bikote homosexualen ezkontza aldarrikatzen kontra. Nire jarrera hura hanka sartze galanta izan zen. Orain badakit. Une honetan oso argi dut borroka zentzuzkoa izan dadin izan behar duela eskubide guztiak pertsona guztientzat erdiesteko. Besterik izango da, eta horretan bat nator garai bateko pentsamoldeekin, gutariko bakoitzak zer egiten dugun eskubide horiekin, baliatzen ditugun, edo ez.

Gaur egungo gay eta lesbianak erosoegi ikusten ditut. Lasaikerian erori garelakoan nago. Une zehatzetan baino ez dugu protestarik egiten, erasoren bat edo larrialdiren bat gertatzen denean. PPko Maroto ere ezkondu bada, zelan azaldu gaur egungo gazteei oraindik badagoela zergaitik borrokatu!

Hainbatetan ikusten ditudan gauzekin ez nago batere lasai. Madrilera joan ohi gara Harrotasunaren festara, ekainean, eta hura folklore hutsa da: mutil eder eta gihartsuak karrozetan, eta koloreak nonahi. Asko daukagula egiteko, jendearen pentsamoldeak errotik aldatu nahi baditugu. Hezkuntzan, esaterako, ez dut uste behar besteko ahalegina egiten denik belaunaldi berriak aniztasun sexualaren inguruan hezteko. Hori etxean bertan ikusten dut. Lobetako bat Madrilen bizi da. Hark baditu 9 eta 10 urteko neskato bi. Orain gutxi aipatzen zidan alaben testu liburuetan bikoteen inguruan ari direnean, bikote heterosexualak besterik ez direla aipatzen. Hori lotsagarria da. Ba-

tez ere Estatuan legezkoak diren bestelako errealitateak ahaztu egiten dituelako eta bazterrean uzten. Iruditzen zait egiari oraindik beldur handia zaiola; hezkutza ardura-dunak beldur direla hor dauden eta baztertu ezin diren bestelako errealitateak onartuz gero, jazo daitekeenaz. Eta ez nahiz bakarrik bikote homosexuales ari.

Polimaitasuna, bikotetik haratago

Nik, une honetan, borrokaren bandera berriro hartu beharko banu, bikotetik haratago dauden harremanak defendatzeko hartuko nuke. Hirukoteen mesedetan, esaterako. Ni neu une honetan hiruko harreman batean sartuta nago. Ia lau urte daramatzagu hi-ruok elkarrekin eta oso ondo doakigu. Ondo dakit gure harremana ulertzea askorent-zat ez dela erraza. Jendeak ez du ulertzen, eta ulertzen dut ez ulertzea. Batez ere, jende askok bikote homosexualen inguruan aurreiritzi larregi dituelako oraindik, gu hi-rukotea garela ulertzeko! Gaitzena da kontra daudenak ez direla heterosexual zurru-nak bakarrik. Gay askok ere ez ditu ez gure harremana ez polimaitasuna aintzat hart-zen. Bitxia benetan, gu gauden bezala poz-pozik baikaude.

Gaur egungo gazteak ez dira konturatzen nolakoa den benetan bizi duten errealita-tea. Pentsatzen dute den-dena lortua dutela badituztelako txoko bereziak askatasun osoz nahi dutena egiteko, betiere txoko horien barruan. Eta hori ez da egiazko askata-suna. Asko aurreratu dugu, jakina. Hori ezin izango dut ukatu. Baina era berean ezin izango dugu ukatu gay eta lesbianen kontrako erasoak o hikoagoak direla.

Amaitzeko esango dut ni egunean bizi naizena. Arestian esan legez, 68 urte beteko ditut laister eta ez dut etorkizunean pentsatu nahi ere. Ondo bizi izan naiz, ondo bizi naiz oraindik, zoriontsu izan naiz, zoriontsu naiz oraindik eta horrela segitu nahi dut Herioak bere egin artean.

Bizkaia, octubre de 2015

NEKANE

- **Gure lesbianismoa ezkutuan bizitzera behartuta egon ginenez, hainbesteko argitasunak itsutu egiten ninduen**

Nekane nauzue, 1948 jaioa eta une honetan 67 urte ditut. Sortzez bizkaitarra naizen arren, Gipuzkoako herri txiki batean hazi nintzen. Ez dakit hala izango den, edo ez, baina umetan inolako bizitza sexualik ez nuela pentsatzen dut. Haurtzaroan, eta batez ere nerabezaroan, Elizak eragindako itolarria gehiegizkoa izan zen. Jasanezina egiten zitzaidan gurekin egindako manipulazioa. Oso gaizki pasa nuen, benetan. Neskato txiki bat nintzela ohartuta nengoen niretzat plazerra herriko neskekin egotea zela. Lagun minak ginen. Neska haiekin nuen konplizitatea erabatekoa zen. Haiekin konfidantza osoa nuen eta edozer gauza esaten genion elkarri. Behin, 8 urte nituela, moja batek mezetan neska batekin hizketan harrapatu ninduen. Izugarrizko errieta bota zigun eta zigorra jarri:

- *Ehun aldiz idatzi beharko duzue: neurea otoitz etxea da eta zuek solasaldi etxe bihurtu duzue.*

Moja hark hitz haiekin beste zerbait adierazi nahi zuela iruditu zitzaidan, zigorra ez zela izan bakarrik hizketan ari ginelako. Izan daiteke susmoa hartu izana neronek neskenganako gehiago sentintzen hasia nintzelako ordurako, ez dakit bada.

Maistrenganako sentimenduak

Orduan jabetu nintzen gure eskolan bazirela maistrak, baita mojaren bat ere, izugarri erakartzen nindutenak. Ez nuke asmatuko azaltzen sentimentu hori zertan zetzan. Ez dakit lilura zen, edo mirespena. Ez dakit zer zen, baina haiekin txoratuta bezala geratzen nintzen. Geroago, barnetegi batean sartu ninduten ikastera eta bertan ohartu nintzen bazegoela bertan zoratzen ninduen seigarren mailako neska bat. Haren izena entzute bakarrarekin, gorri-gorri jartzen nintzen. Jakina, sentimendu horiek guztiak ixilpean gordetzen nituen.

- *Zer gertatzen ari zait?* –galdetzen nion neure buruari.

Halako batean ohartu nintzen neure ikasgelan, hirugarren mailan, neska guztiek beren zerrendatxoa egina zutela. Bertan jasotzen zituzten gustuko zituzten seigarren

mailako neska guztien izenak. Bai, ni neure sekretutxoarekin izututa bizi nintzen bitartean, haiek ez zuten lotsarik batere nahi zutena botatzeko:

- *Txoratuta naukate bai urliak, bai sandiak eta baita berendiak ere!*

Horiek guztiak entzun arren, ixilik geratzen nintzen. Ez nintzen ezer esatera ausartzen. Asteak joan asteak etorri, neska hura gero eta gehiago gustatzen zitzaidan. Behin ikaskideek galdera egin zidaten:

- *Eta hik zer, ez al dun inor gustuko?*
- *Nik ez.* –esan nien xalotasun handiz.
- *Bai zera!* –erantzun zidaten- *Hi urliarekin txolinduta hago eta!*

Alditxarrak hor bertan jo ninduen kasik. Zur eta lur utzi ninduten, erabat asmatu baizuten. Eta bazen bitxia gertatzen ari zitzaiguna. Izan ere, harreman homosexualak bazirenik ere ez genekien eta hala ere, neska guztiek zuten zerrendatxoa egina, zein edo zeintzuk neska zituzten gogoko biltzen zituena, alegia. Ez dut esan nahi horrek guztihorrek kutsu sexuala bazuenik. Txolinkeriak izango ziren, beste ezer baino gehiago, baina zerrendak egon bazeudela, hala da.

Nirekin, zerbait arraro gertatzen ari zen

Adin horretan konturatu nintzen nirekin zerbait arraro gertatzen ari zela. Garai haietan, gainera, bi ikaskide jolasean atzeman zituzten ohean. Gartakariak eskolako hautsa guztiak harrotu zituen. Bi neska haietatik bat, eskolatik bota egin zuten. Jazotakoak nire izuak areagotu zituen eta nire sentimendu, griña, gogo edo zena zelako haiek guztiak beste modu batez ikusten hasi nintzen. Bitxiak ote ziren? Itsusiak? Ez nekien ondo nola azaldu barruko zera hura. Hori bai, 13 urte besterik ez nituen eta ordurako ezin nion neure buruari ukatu zerbait arraroa gertatzen ari zitzaidala.

Inori aipatu ezin nizkion beldurrak ziren. Neska hark nire baitan pizten zuen sumendia bazen… ez duk asmatuko azaltzen. Urduritasuna zen batetik, larritasuna. Baina bestetik, halako bizipoza. Horren kezkatuta nengoenez, eskolako apaizarekin hitz egitea erabaki nuen. Esan nion:

- *Ez dakit zer gertatzen zaidan neska horrekin...*
- *Ez nau harritzen, ni neu berdin bainauka*. –erantzun zidan.

Piskana neska harenganako sentimenduak uste nuena baino sakonagoak zirela konturatu nintzen. Neure buruari esaten nion: *Baina zeinen neska ederra!* Eta konturatu

nintzen neskekiko gustu horrek bazuela neurri bateko kutsu fisikoa ere. Erakarpen fisikoa zen, ez sexuala. Ordurako masturbatzen nintzen jada. Garai hartan sexuarekin zerikusai zuen guztia mutilei zuzenduta zegoenez, maindire azpian klitoriari eragiteko mutilenei jartzen nien arreta. Oraindik ez nuen lotzen neskenganako nuen zaletasuna sexu grinarekin. Banekien gustu hura ez zela ohikoa, baina ez nituen desio haiek sexualitatearekin lotzen. Burutik pasa ere ez zitzaidan egiten. Garai hartako neskatoak txepelak ginen, geldo-geldoak erabat. Sexualitateari buruzko informaziorik ez genuen, eta oraindik gutxiago homosexualitea edo lesbianismoari buruzkoak. Eta ezin genuen horien inguruan inorekin hitz egin. Ezin genion inori hitz egin desio haiei buruz, guk geuk igartzen ez genituen pasio haiei buruz.

Barnetegain lagun min bat egin nuen. Neska hura laguna zen, besterik ez. Baina behin, tren geltokian geundela eskutik heldu zidan. Pozarren nengoen, haren eskuari lotuta. Gertaerari ez nion, hala ere, bestelako kutsurik hartu. Neskek erakarri egiten ninduten, baina sexurako mutilak hartzen nituen gogoan. Nire sexu fantasia guztiak mutilenganakoak izaten ziren, nahita ez hala behar zuela suposatzen baitzen.

---

18 urtekin, artean inozo samarra nintzen

Esateak ere lotsa ematen dit, baina Medikuntza ikasketak egitera Valladolidera joan nintzenean 18 urtekin, 13 urte nituenean bezain inozo izaten segiten nuen. Ikaskideekin batera pisuan bizi nintzen eta hor ere, pisukide batekin txolinduta geratu nintzen, neska harekin erabat maiteminduta. Horrela, pisukideak mutil-laguna hartu zuenean, lur jota utzi ninduen. *Nekane*, esaten nion neure buruari, *zerbait larri gertatzen dun hirekin, hi ez haiz batere naturala!* Neska horrenak hain gaizki utzi ninduen, azkenean psikiatra batengana jotzea beste aterabiderik ez nuen ikusi. Garai hartako psikiatrak eta zakurraren putza, antzerakoak:

- *Egon hadi lasai.* –esan zidan- *Eutsien gogor ikasketei eta ahaztuitzan beste guztiak.*

Gogoan dut psikiatrari egindako bisitaldi hark lasaitasun piska bat eman zidala, ezertxo ere argitu ez zidan arren. Ez esateagatik, psikiatra hark ez zidan esan, ezta ere, zer zen edo zein izena zuen barruko sentimendu haiekin gertatzen ari zitzaidan hura. Gaiari buruz lehenengoz zerbait entzun nuenean, *mari-motrailu* hitza izan zen, irain bezala erabilia, eta zera pentsatu nuen:

- *Uste dut horixe naizela.*

Azkenean nire anaiak ireki zizkidan begiak. Hizketan ari ginela ikaskideekin partekatzen nuen pisua utziko nuela jakinarazi nion. Angelesekin haserretu nintzela esan nion. Kale erdian seko geratu zen, aurrez aurre jarri zitzaidan eta esan zidan:

- Haserretu egin haizela? Ez polit hori, Angeles gustuko dun eta hori dun arazoa.

Lasai egoteko esan zidan ondoren, berari ere antzeko zerbait geratu zitzaiola umetan.

- 10 urtekin eskolako mutilak nitinan gogoko. Handitutakoan pasa zitzaidanan.

Anaiari pasa zitzaion, niri ez. Neska harenganako sentimenduak errotuegiak zeuden nire bihotzean.

Pisu berrian bizi nintzela ohartu nintzen pisukideon arteko jolasak askotan fisikoegiak izan ohi zirela. Inork ez zuen inoiz berbar bakarra aipatu ez sexuaz, ez *mari-gizone*z, ez antzeko ezertaz. Hala ere gure arteko jolasa, oso lizuna zen. Lizunak gure pisuko jolasak, lizunak ondoko pisukoak eta are lizunagoak beheko pisuko nesken jolasak. Bazirudien gure artean gauzak apur bat argitzen ari zirela. Eta hori emakumeen sexuak tabu izaten segitzen zuelarik, eta are gehiago emakumeen artekoak. Egia da antisorgailuen agerpenak emakumeak askatu egin zituela, neurri batean; betiere larrua jo, gizonezkoekin jotzen bazuten. Hargatik jolaskide guztiok senargai moduko bat izaten genuen. Nik ere bai. Sutan nuen gizajoa. Esaten zidan:

- Baina, zu eta bion artean, zer?
- Zu eta bion artean, ezer ez. –erantzun ohi nion.

Zinemara eramaten ninduenean azken ilaran jartzen ginen eta nik ez nion eskua sartzen uzten. *Utzidak pakean*, esaten nion. Horrela egon ginen beste neska bat ezagutu, hura haurdun utzi eta ezkontzera behartuta egon zen arte. Ezkontza ospakizuna izan genuen unibertsitate garaian.

Horrekin guztiarekin ez dut adierazi nahi gizonezkoek sexualki erakartzen ez nindutenik. Sexurako gogoko nituen, baina maitemindu, ez nintzen haiekin maitemintzen. Halakorik ez zitzaidan sekula gertatu.

Lehenengo txortaldia emakume batekin

Pisukide ohia ahazteko ahalaginetan nengoela, ondoko pisuan bizi zen neska batekin zerbait larri gertatzen ari zela ohartu nintzen. Oso agerikoa zen haren inguruan bizi ginen guztiontzako neska hark arazoren bat zuela, larregi edaten baitzuen. Ia egunero

mozkor-mozkor eginda etxeratzen zen. Behin botila eskutan zekarrela sartu zen gure etxean. Hura ikusita pisukideetako batek ezustekoan ireki zizkidan begiak:

- Hi ez al haiz konturatzen hau hirekin txotxotua zegonela, ala?

Ez dakit nondik atera zuen horren zuzen hitz egiteko adorea. Hain zuzen hitz egin zidan, hain argi… garai haietan ezin ziren gauza horiek horrela esan. Oso argi geratu zitzaidan, hori bai, ordurako pisuko guztiak konturatuta zeudela. Ateraldi horrekin pisukideak begiak irekitzearekin batera desioa piztu zidan. Niretzat ordura arte, neska hura, mozkor-mozkor eginda etorri zitzaigun hura, taldeko beste bat zen. Neska arrunta, alegia. Egun hartatik aurrera neska hura beste begiekin begiratzen hasi nintzen eta ohartu nintzen baietz, atsegin nuela. Zirt eta zart egin nuen, ondorioei erreparatu gabe. Neska harekin oheratu nintzen eta txortan egin genuen. Sexua ez zen sutziriak botatzen hasteko modukoa izan. Gu biok oso baldintzatuta geuden erlijioagatik eta jendearen artean joera nagusia, ia bakarra, heterosexuala izateagatik. Haiek, baldintza psikologiko ikaragarriak ziren eta zama astunegia gu biontzako. Kulpaz eta lotsaz bizi izan genuen txortaldi xume hura. Eta ezin genion inori aipatu zer gertatzen zitzaigun. Lagun minenekin zertxobait hitz egin genezakeen. Baina ez guztia. Horrenbestekoa izan zen jasandako kulpa sentimendua, nirekin maiteminduta omen zegoen neska hura nigandik aldendu zela, gure artean ezer geratu izan ez balitz bezala.

Hori guztia gogorregia egin zitzaidan. Azken batean ohe hartan egindakoa nire ustez, inoiz egindako gauzarik ederrena izan zen. Horrela bukatu zen emakume batekin izandako lehenengo sexu jarduna. Beti pentsatu dut egun hartatik aurrera hormonek salbatu izan nindutela, lehenengo txortaldi hark pott eginda utzi baininduen psikologikoki. Ez dakit bada, baina beti pentsatu dut neska bat mutil batekin oheratzen zenean, biek pozarren bukatzen zutela. Gure, alta, ikaragarria izan zen.

Kostata baina azkenean gainditu nuen emakume batekin izandako lehen txortaldi hark eragindako frustrazioa, eta denborarekin lortu nuen niretzat emakume batekin oheratzea arazo ez izatea. Kulpa sentimendu hura ere gainditu nuen, azkenean. Gerora konturatu nintzen gabezia dezente nituela oraindik, baina kulparik, ez.

Erietxean lan egiten

Lehen txortaldi haren ondoren, izan ziren gehiago. Ikasketak bukatutakoan, Madrilgo auzo txiki bateko erietxean hasi nintzen lanean. Gogoan dut urte haietan lesbianentzako Madrilen zegoen taberna bakarra nazkagarria iruditzen zitzaidala. Taberna beteta

egoten zen, hori bai, baina han bildutako lesbianek moja itxura ikaragarria zeukaten. Hura zen hura, lizunkeriaren kontrako txertoa. Madrilen ez nuen besterik ezagutu.

Eritxean, bost lagun ginen larrialdien txandan, lau emakume eta horietatik hiru lesbiana. Zoratzear nengoen. Beste biak ere lesbianak zirela esan dut, ez beraiek ezer aitortu zutelako, nabaritzen zitzaielako baizik. Batak ez zion besteari arretarik kentzen eta bestea beti zegoen lehenengoaren atzetik. Madrilen ez nuen inor ezagutu eta hara non lantokian topatu behar halako panorama. Pozarren nengoen.

Gazteak izanik dirua irabazten genuen eta askotan joaten ginen, esaterako, etxetik kanpo afaltzera eta dantza egitera. Ondo pasatzen genuen, benetan. Hori bai, lana ere handia zen, nekosoa. Gau batean dantzalekuan jira-bueltaka genbiltzala neska bat sartu zitzaidan eta harekin bukatu nuen. Neraman itxuragatik sartu zitzaidala iruditzen zait. Ez naiz inoiz marineska izan, ez dut sekula *Barbie* itxurarik gorde. Erietxean lan egiten genuen emakumeok, bat izan ezik, nahiko *mari-motrailu*ak ginen. Ezusteko galanta izan zen gau hartakoa. Piska bat edanda nengoen eta komuna non zegoen ez nekiela ozen esan nuen. Ondoko emakumeak, kazetaria bera, zera esan zidan:

- Ez hadi kezkatu, nik eramango haunat oraintxe bertan.

Hain zen liluragarria haren hizkera! Halakorik entzuten ohituta ez nengoenez, emakume hura oso atsegina egin zitzaidan. Euskal emakume peto-petoa naizen aldetik, naizen bezain zakarra izanda, txunditua joan nintzen harekin komunera. Oso emakume atsegina zen, zoragarria. Eta harreman bati ekin genion. Harremana hitza erabili dut, gu bion artekoa nolabait azaltzearren. Bera bisexuala zen eta oso irekia. Harentzat ni ez nintzen bakarra. Bazituen bizpahiru mutil-lagun, beste neska batekin ere oheratzen zen, eta gero ni. Harri eta zur bizi nintzen ni: laztasun erabatekotik, parranda erabatekora pasa nintzen ziztu batean.

Nirekin lan egiten zuten lesbiana haiekin, alta, ez nintzen moldatu. Lanean ez nuen haien babesa edo laguntzarik izan. Egia da, nahikoa zutela beraien bizitza ezkutuan gorde nahi izatearekin. Haien artekoak beti ziren isilekoak eta erran-merrankakoak. Erietxeko barne-giroa ezagututa, ez zen harritzekoa. Barruko giroa oso zorruna zen. Gerora jakin nuen bazela langile homosexualen zerrenda egina zuen zirujau bat. Mediku haren obsesioa lantokiko *nazkagarrien zerrenda* egitea omen zen, eta hor ageri ziren erietxeko gay guztiak. Mutilak baino ez, hori bai.

Hortaz, tentuz ibili beharra zegoen arren eramangaitza eta itolarria egiten zitzaidan ezkutuan bizi behar izate hori. Ni baldintzatuta bizi izan nintzenean, baldintzek eraginda bizi izan nintzen; baina neure burua askatu nuen neurrian, lotsarik gabe hustutzen

nituen barruak, hustu behar nituenean. Salbuespenak salbuespen, nire buruarekiko oso zintzoa nintzen.

Arestian aipatu bezala, urte haietan Madrilen ez zegoen ia ezer emakume lesbianontzat. Lehen aipatutako taberna hura izan ezik, ezer ez. Eta bakar hura, gustu txarrekoa, benetan. Kasualidadez gay bat ezatutu eta haren lagun egin nintzen. Harekin ezagutu nituen mutilentzako *giro* lekuak. Horrek bai utzi ninduela txundituta, hamaikatxo toki zeukaten gay gizonek, nahi bezala gozatzeko.

Emakumeen Asanbladan, arrotz

Mutilek ez bezala, emakumeok ez genuen gure lagun lesbianen taldea izan, gure kuadrila. Neskak Donostian ezagutu nituen, MIR izeneko azterketa prestatzera Gipuzkoako hiriburura etorri nintzenean. Franco zendu berria zen eta ordurako, han eta hemen, martxan ziren Emakumeen Asanbladak. Ni Madrilgo taldean egon nintzen Euskal Herrira etorri baino lehenago eta, behin Donostian, bertoko taldean sartzea erabaki nuen. Mundu berri bat ireki zitzaidan. Eta hori euskaldunak ez garela, izaeraz, batere atseginak. Bertoko emakumeek ez zuten ahaleginik txikiena ere egiten, heltzen zitzaizkien kide berriei harrera goxoagoa egiteko.

Izan nintzen lehenengo bileran ondoan nuen emakumea oso-oso urdurik zegoela konturatu nintzen. Taldeko neska gazteei kosta egingo zitzaien, beharbada, adineko emakumeok batzarrean uzkur egon gintezkeela, lotsatuta bezala, ulertzea. Baina Franco hil berria, 70. hamarkadaren bigarren zatian, emakumeoi, askori bai behintzat, adorea falta zitzaigun. Lehenengo batzar hura beldurgarria izan zen. Inork ez zigun ezer esaten. Hor geunden gu, lurrean eserita entzuten eta ez ginen ezer esatera ausartzen. Egia da ni pozarren nengoela, baina egia da baita ere, arrotzak bagina bezala hartu gintuztela. Azkenean, geure burua apur bat lasaitze aldera, whiskitxo bat artzea erabaki genuen, eta hori artean ni whiskia probatu gabe nengoela. Lehenengo batzar horren ondoren beste hamaika bilera etorri ziren eta ahal izan nuen guztietan bertan izan nintzen. Azkenean Asanbladako emakumeek aintzat hartu ninduten.

Ez dut gogoan Donostiako Emaumeen Asanbladan lesbianismoaz inoiz hitz egin genuenik. Taldearen barruko giroa oso politikoa zen. Ekintzaileak ginen, batez ere. Baina ez dut gogoan sexualitateaz inoiz hitz egin genuenik. Taldeak, hala ere, ni bezalako emakumeak ezagutzeko aukera eskaini zidan. Hori oinarrizkoa izan zen, niretzat. Asanbladako emakumeen adiskide izatea, dena den, oso zaila zen. Niretzat batez ere, izakeraz ez naizelako batere atsegina izan. Aitortu behar dut, baita ere, naizen be-

zalakoa naizelako, emakume bat ezagutu eta harekin harremanetan hasi orduko, gainerako guztia ahaztu egiten zitzaidala: Ez nintzen batzarretara joaten eta ez nuen harremanetik haratago ezer ikusten, ezer egiten. Unean uneko neska eta biok *Alboka*n ibiltzen ginen. Taberna oso ondo zegoen, bertan neska gazte ugari biltzen baitzen.

Zailena, neure burua nabarmentzea

Neska gazteak lotsagabeak ziren, oso. Zentzu onean lotsagabeak, jakina. Oso libreak ziren, gu inoiz izan ginena baino askoz libreagoak. Beldurrik ez zuten, ziren bezalakoak izan eta bizitzeko. Ni bezain emakume epalarentzat, haiek liberalegiak ziren, zerbait esateagatik: Gaur batekin oheratzen ziren, bihar beste batekin eta biharamunean, berriz, hirugarren batekin. Eta arazoa ez da ni haiek baino zaharragoa ote nintzen. Ez zen hori. Baina garai haietan zortzi urteko aldea, izugarria zen. Eta zer esanik ez gu baino 15 urte gazteagoak zirenekin. Ni oso emakume zuhurra nintzen, lar neurritsua. Bikote egonkorrarekin egiten nuen amets eta gazte haiek berriz, parrandarekin. Zailena niretzako, neure burua nabarmentzea izaten zen. Gure lesbianismoa ezkutuan bizitzera behartuta egon ginenez, hainbesteko argitasunak itsutu egiten ninduen.

Lasaitasuna adinarekin batera lortu nuen, besteek ziotena bost axola zitzaidan arren. Berandu izan zen, 40 urtekin. Penagarria, bai. Batez ere ordura arteko gure bizimodua adar jotze hutsa izan zela ohartu nintzen eta. Nik pentsatzen nuen, esate baterako, gure etxean ezer ez zekitela. Behin Iñaki, iloba, gay zela esanez etorri zitzaidan. Hura lasaitu nahain, edo, ni lesbiana nintzela aitortu nion:

- Bai zera! Etxean guztiek dakite eta! Beti jakin dute.

Gure garaian ezin genuen gauza horiei buruz hitzik ere egin. Gure bizimodua oso bestelakoa izan zen. Zorionez gauzak dezente aldatu dira. Onerako aldatu, gainera. Hori bai, ez naiz bizi izandakoaren damu. Pentsatzen dut horren baldintza zurrunetan neure burua txukun gobernatzen asmatu nuela. Kostata, baina besteen aurreiritziak gainditzea lortu nuen azkenean eta horri esker, bizitzari buruzko nahiko ikuspegi irekia daukat gaur egun. Begirune handia diot nire intimitateari eta naizen bezalakoa izanik, zoriontsua naiz eta neure buruaz oso harro nago. Garai batean ez bezala, aurreiritziek, beldurrek edo loturek ez dute neure bizitza baldintzatzen.

Gipuzkoan, 2015eko otsailean

MIGUEL

- **EHGAMen gay izateko beste modua ezagutu nuen, ni nintzenarekin eta sentitzen nuenarekin ondo egokitzen zena**

Miguel nauzue, 1947 urtean jaio nintzen eta Zugarramurdin, Nafarroan, hazi ninduten, nahiz eta ia bizitza osoa Bilbon eman nuen, azkenean Donostia ondoko herri txiki batean amaitzeko. Ume nintzela gogoan dut desioak neskengana zuzenduta zeudela. Eskolako neskek baino ez ninduten erakartzen garai hartan. Eskolaurrean jolasteko, neskekin elkartu ohi nintzen eta gure gorputzak ezagutzeko baliatzen genituen jolas haiek. Nik banuen haien berezitasunak ezaguteko jakin-min handia, eta haiek berrie, nireak. Hori nik 5 urte nituela gertatzen zen. Eskolan, eskolako neskekin, eta etxean lehengusinarekin gure gorputzak ezagutzera jolasten genuen.

Ez naiz inoiz damu izan sexualitatearekin jolastu izanagatik. Nire gorputzaz beti gozatu dut, lasaitasun osoz. Lehen jaunartzerako jantzia egin zidatenean, gogoratzen dut jantzia egin zuen jostunak bazuela nire adineko seme bat. Gure amak txutxu-mutxuan ari ziren une batean, trenbidera eraman ninduen eta zera esan zidan:

- Txilina eta ipurdia erakutsi behar dizkidak.
- Ipurdia erakutsiko diat, baina txilina ez. –esan nion.
- Ba nik, den dena erakutsiko diat. –erantzun hark.

Gure amekin itzuli ginenean, nireak errieta egin zidan galtza-uhalak gaizki jarrita nituelako. Zertan ibili ginen galdetu ziguten arren, guk ezertan erantzun genien. Orduan konturatu ginen lehiotik ikusi zutela trenbidean jazotako guztia. Ama haserre neukan, baina jostuna ez zegoen lasaiago:

- Honekin –semeagatik*-, ez naun batere fio.*

Horrelakoak izan ohi ziren 50. hamarkadako umeon sexu jolasak. Inozo-inozoak, alegia. Mutilak beranduagora arte ez nituen begiratu modu lizunagoan. Ordurako 17 urte nituen. Batxilergoa amaitu berri, ikastegi batean Kontularitza ikasten ari nintzela, beharra eskaini zidaten bulego batean. Lankide baten lagun egin nintzen bulegoan. Hura apaiztegian egona zen lehenago eta askotan aipatzen zizkidan han bizi izandakoak. Lagun minenak ginen. Behin elkarrekin geundela, laztan batzuk egin zizkidan eta ni ez nintzen horrekin arduratu. Esan zidanez laztanak ohikoak izaten ziren apaiztegian, lagun minen artean egindakoak batez ere.

Nire lehenengo maitasun platonikoa

Festetara joaten ginenean, neskekin dantza egiten genuen. Garai haietan, sexuarekin zerikusi zuen guztia debekatuta zegoenean, lagunak ondo gordetako sekretutxo bat aitortu zidan. Antza sarri joaten zen Azokara saltzen zebiltzan emakumeen bularrak ikustera. Esan zidanez, edozer gauza hartzeko makurtzen zirenean bular puska haiek batetik bestera mugitzen zitzaizkien eta horrek izugarri kilikatzen zuen. Mutil hura emakumeen bularrekin obsesionatuta zegoen. Horixe zuen ezkutuko sekreturik handiena.

Garai horretan, idiarena jotzen nuenean, neskak hartzen nituen gogoan, neskak eta mutil zoragarri hura. Bera izan zen zalantza barik, nire bizitzako lehengo maitasun platonikoa. Gure artean zirri batzuk eginak genituen eta baita musu batzuk eman ere. Baina hortik aurrera, ezer ez. Handik gutxira soldadu joan zen, ni baino hiru urte zaharragoa zenez, eta Bilbon geratu nintzen ni, lur jota erabat eta bakar-bakarrik. Haren gutunak bizitzeko arnasa bailiran itxaroten nituen. Gutuna beti hasten zuen *Ene lagun min hori* esaldiarekin, eta bukatu berriz, *musu bat*ekin. Ni haren gutunen zain bizi nintzen.

Horrekin guztiarekin ez dut esan nahi gure artean adiskidetasuna ez zen besterik bazegoenik. Jakin ere, ez nekien homosexuala izatea zer zen. Umetan, lagunekin futbolean jokatzen nuenean, horren motela nintzen lagun guztiek errieta egiten zidatela:

- Neska baten modura jokatzen dek!

Horrek mindu egiten ninduen, baina ez nekien zergatik. Urte dezente pasatu behar izan ziren neu gainerako mutikoen antzekoa ez nintzela pentsatzen hasteko. Eta inoiz neure burua beste mutil bati begira atzemanez gero, garrantzia kentzen nion jazotakoari. *Normala izango duk, pasako zaik*, pentsatzen nuen:

- Neska batekin maiteminduko, harekin ezkondu eta gure familia osatuko diagu.

Hura izango zen nire etorkizuna. Asmo horrekin bizi izan nintzen 18 urte bete nituen arte. Baita lankidearekin zirriak egin eta elkarri musuak ematen genion bitartean. Zirri eta musu haiek ez zuten nire etorkizuna baldintzatuko. Ni ezkondu egingo nintzen, ezkondu egin behar nintzelako. Besteak ere ez zion sekula bestelako garrantziarik eman egiten genuenari. Harentzat apaiztegian hartutako ohiturak ziren haiek eta ez zuten bestelako garrantziarik.

Apaiza salatzea ez zen gauza erraza

Gaztetan eso mutil elizkoia izan nintzen. Apaizen aldetik nik gehiegikeriarik sufritu ez banuen ere, entzuna nien beste mutikoei beraiek bai abusua jasan zutela. Ez zuen horretaz askorik hitz egiten, beldur handia izaten zutelako. Ez zen erraza Katekesiko apaizaren kontura ezer txarrik esaka ibiltzea. Are gutxiago Bilboko apaiz haren kontra ezer esatea. Bilbon ospe handiko apaiza zen gizon hura. Inor ez zen haren kontra ezer esatera ausartzen, baina guztiok genekien, ondo jakin gainera, mutiko bat hartu eta bere gelara eramaten zuenean, ez zela errezatzeko izaten. Izan zen apaiz haren kontra etxean hitz egin zuen mutiko bat, eta gurasoek bera zigortu zuten:

- On Vicenteren kontra, halakorik ez!

Etxean ezin genuen apaizen kontra ezer esan, eta hori gure parrokian bazela gu aitortu bitartean laztanak egiten zizkigun apaiza. Baina ezin genuen ezer esan. Eta guztia esatekotan ere, aitortu beharko nuke niri laztan haiek izugarri gustatzen zitzaizkidala. Ez ziren laztanak bakarrik. Apaiza oso atsegina zen gurekin, adeitsua eta gozoa. Horren gozoa, parrokiaz aldatu zutenean ni haren atzetik joan nintzaiola konfesioa berarekin egiten segitzeko. Apaiza oso gozoa zen nirekin. Ez beste batzuk bezala. Nik ezingo nuke esan hark egiten zizkigunak abusua zirenik, nahiz eta une horretan ez neukan batere argi zer zen abusua sufritzea, eta zer ez.

Zinema aretoan ligatzen

Bulegoko lagun mina soldadu joan zenean eta ondorioz, gure artekoa amaitu zenean, ni gaixotu egin nintzen. Pleuritis larri batek harrapatuta bederatzi hilabete eman nituen Santa Marina ospitalean. Laguna soldadutzatik itzuli zenean ezkondu egin zen, umeak egin zizkion emazteari eta nitaz ahaztu egin zen. Erabat ahaztu, gainera. Gaur egun, oraindik, kalean topatzen dudanean ez ikusiarena egiten du, inoiz elkar ezagutu ez bagendun bezala. Behin osatuta eta gure arteko harremana erabat ahituta, zineman jaso nituen hurrengo laztanak. Ondoko jesarlekuan zegoen mutilak egin zuen guztia. Ezustean harrapatu ninduen hankan eskua jarri eta zirri batzuk egiten hasi zitzaidanean. Hanketan hasi eta gorantz egin zuen gero. Nik ez nion trabarik ipini. Hori bai, argiak piztu zituztenean ni gorri-gorri nengoen, lotsak hartaratuta. Bera berriz, lasai-lasai zegoen. Horrek trankildu ninduen. Ni baino apur bat zaharragoa zen mutila, ederra eta adeitsua. Zinematik zerbait hartzera joan eta bere txartela eman zidan.

Egun dezente pasa ziren txartelan ageri zen telefono zenbakira deitu nuen arte. Adorea falta zitzaidan. Lantokira joan nintzaion eta txortan bertan egin genuen, bere bulegoan. Labe Garaietan egiten zuen behar, Barakaldoko egoitzan.

Egun hartan harreman xume bati ekin genion. Kuadrilako lagunak aurkeztu zizkidan. Uste dut lagunek ere ulertu egiten zutela, baina horretaz ez zuten berbarik egiten. Haien artean den-dena zen oso diskretua. Denborarekin konturatu nintzen mutil-laguntzat nuen gizon hark ziria sartua zidala. Behin gogo-jardun batzuk zituela-eta, egun batzutan kanpoan izango zela esan zidan. Gero jakin nuen Donostiara joana zela, bertan zeukan beste mutil-lagun bati bisita egitera. Lur jjota utzi ninduen, pot egin-da.

Oraingoan neri tokatu zitzaidan soldadu joatea eta horrela bukatu ziren gu bion artekoak. Kuartelean nengoela buelta asko eman nizkion buruari eta azkenean, gizonari agur esateko gutuna idaztea erabaki nuen. Gutuna idatzi nuen, baina postontziaren aurrean nintzela damatu eta hor bertan puskatu nuen gutun-azala, barruko mezu eta guzti. Ezin dut esan gizon hartaz maiteminduta egon nintzenik. Gezurra litzateke. Fisikoki erakartzen ninduen, jakina, baina hori zen guztia. Soldadutza amaitu nuenean, 1970 urtean, berriro batu ginen Bilbon, baina berba egiteko baino ez. Gure artean egon zitekeen edozer, iragana zen ordurako.

Bizitzaren une horretan gertatu zitzaidan, baita ere, betiko kuadrilatik aldentzea. Batzuk neska-laguna hartu zutelako, besteak ezkondu egin zirelako edo beste batzuk lanagatik hiriz aldatu zutelako, bakoitzak bere bidea hartu zuen eta nik neurea. Kuadrilan neukan lagunik minena Estatu Batuetara joan zen bizitzera. Berarekin joateko eskatu zidan arren, ez nintzen ausartu eta berton geratu nintzen. Inoiz ez nuen jakin hark, nire moduan, ulertzen ote zuen, edo ez. Arrebak esanda jakin nuen gerora, AEBn emakume kubatar batekin ezkondu zela eta alaba bi zituela. Baina handik urte batzutara, familia bisitatzera etorri zen batean, nirekin berba egin nahi zuela-eta, kafetxo bat hartzeko Geratu ginen. Orduan aitortu zidan bera ere gay zela. Inori ez esateko ere eskatu zidan, batez ere etxekoei. Nik dakidala AEBn segitzen du, ezkonduta eta bizimodu bikoitza eramanez. Nik ere izan nuen harremanik neskekin, baina aitortu behar dut arrebatzat hartzen nituela gehiago, neska-lagun baino.

Desio eta grinak askatuz

Une horretan erabaki nuen neure burua aintzat hartu eta ordura arte zapuztutako desio eta grinak askatzea. Gizonekin oheratzen hasi nintzen, baina baita gizonak ezagut-

zen ohetik kanpo ere, adiskide bezala. Entzuna neukan *Actualidades* izeneko zinema-aretoan, Buenos Aires kalean zegoen horretan, ez nuela arazorik izango mutiletan aritzeko. Hor ezagutu nuen lankide baten anaia. Berdin-berdinak ziren anaia biak. Berdinak baino, oso antzekoak, nire lankideak bere burua matxotzat baizeukan eta beti zebilen harrotuta bere zakiltzarraren tamainagatik. Anaia zinema-aretoan ikusi eta besteagatik galdetu nionean, ia-ia seko geratu zitzaidan, sustuak hartaratuta.

Mutil ehizarako beste areto aproposa *Ideal* zinema izaten zen. Bertan ezagututako hainbat eta hainbat gizon lagun bihurtu ziren denborarekin eta haiekin osatu nuen gero, kuadrila.

Zineman bezala, Algortako Punta Galea hondartza toki polita izaten zen mutiletan egiteko. *Giro*ko tabernarik ez zegoen artean, nahiz eta hainbat tokitan gizonak ezagutzeko aukerarik ez zen faltan izaten. Mesedeetako kalean, esate baterako, bazegoen *Livi* izeneko taberna bat, jende guztiaren ahotan *maritxu*en tabernatzat hartzen zena. Ni tabernetan ez nintzen gustura ibiltzen, ez mutiletan aritzeko. Besterik zen kuadrilakoekin pote bat, edo bi, hartzea joatea. Gogoan dut sarri joaten ginela *Arriaga* antzokiko *Opera* kafetegira. Toki horietan guztietan ezagutu nituen txoartarako edo lagun izateko gizonak. Harremanak irauten zuena, irauten zuen. Bat edo bi izan nituen luze iraun zutenak nirekin, baina ezingo dut esan mutil-lagunak zirenik. Adiskideak baino ez. Zergatik hori? Nik ez nuelako harreman iraunkorrik nahi, ez garai haietan gutxienez.

Borroka, niretzat, askatzailea izan zen

Lehengo bikotea, egiazkoa, berandu heldu zitzaidan hortaz, 30 urte aspaldi beteak nituela. Ez da harritzekoa kontutan hartzen badugu nik 28 urte nituela Franco zendu zenean. Diktadorea hil eta hurrengo urteetan izandako eztanda politikoan hainbat alderdi sortu ziren, bai eta EHGAM (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) ere. Ni EHGAMkide izan nintzen, gay nintzen aldetik zerbait egin beharra zegoela ikusten nuelako. Eta politikan berriz, EMKn sartu nintzen, Euskadiko Mugimendu Komunistan, alegia. Erakunde bi horietan lan egitea katarsi moduko bat izan zen niretzat, erabat askatzailea. Ordura arte bizimodu bikoitza eraman ohi nuen lagunen, etxekoen eta lankideen aurrean. Laneko giroarekin obsesionatuta nengoen, erabat. Beharra enpresa multinazional batean egiten nuen eta lantokian itxurak gordetzera behartuta nengoen. Ezin nuen ezer adierazi, ez etxean ez lantokian, eta neure izana ezkutuan gorde behar izatea oso-oso astuna egiten zitzaidan. Lantokian batez ere. Lankideen irain

matxista eta homofobikoak eramangaitzak egiten zitzaizkidan. Ez zizkidaten niri esaten zuzenean, inork ez baizekien ni ere gay nintzenik baina gaizki pasatzen nuen horiek guztiak entzunda.

Enpresa aldetik ere, langileenganako kontrola oso zurruna zen. Neska bati, esate baterako, izugarrizko errieta egin zioten Artxandan nirekin ikusi zutelako. Egia da bertan izan ginela, baina jolas-parkean egin ohi zuten jaialdi batera joanak ginen, ez Artxandako pinudian txortan egitera, bikote askok egiten zuten modura. Enpresa buruek gogor egin zioten ustez pinudian izan ginelako. Niri ez zidaten ezer esan baina emakumeari, kristonak eta bost.

Etxean ere ez nintzen sekula ezer esatera ausartu. Arrebekin ez dut inoiz gaiaren gainean berbarik egin. Gay naizena badakite, mutilekin ikusi nautelako. Ez nielako ezer esan errieta egin zidaten behin. Nik erantzun nien beraiek ere ez zidatela ezer galdetu. Orain nahiko harreman polita daukagu etxean, baina gaztetan inoiz ez ziren arduratu ni pozik nenbilen, edo ez. Eta gurasoak bizi zirenean ere, ez nintzen ausartu haiekin zintzo izaten. Gure aita zenak, nik uste, zerbaiten susmoa bazuela. Izan ere, familiakoek mutiltzar segitzeagatik estutu egiten ninduenean, gogor erantzuten zien:

- Zergatik ez duzue pakean uzten? –esaten zien gure aitak- *Bera ondo bizi da eta ondo baino hobeto daki zer nahi duen.*

Jarrera horiek beti lasaitu ninduten. Egia da inoiz ez genuela gaiari buruz berbarik egin; egia den bezala ez nindutela sekula ezertara behartu. Eta gure etxean ez zen nire balizko homosexulitateaz hitz egiten, beste hainbat gaiei buruz hitz egiten ez zen modu berean. Hau da, guk badakigu gerra garaian etxekoek oso-oso gaizki pasa zutela, erepublikazaleak izan zirelako. Baina gurasoen ahotan ez dugu sekula hitzik entzun horren inguruan. Onartu behar dut primerakoak izan zirela tokatu zitzaizkidan gurasoak. Bizitzan hainbat gizon zoritxarreko ezagutu ditut, etxekoek hartaratuta ezkondu behar izan zutenak, beraien desioak ezkutatuz. Hori bai, ezkondu eta umeak egin arren, ez dut ezagutu egoera horretan bizimodu bikoitza egin ez duen gizonik. Eta bizimodu bikoitzak dakartzan ondorioak larriak eta tamalgarriak dira, beraientzat eta beraien familientzat, bereziki.

Horregatik guztiagatik EHGAMkide izatea liberazioa izan zen niretzat. Taldean ikasi nuen gay izatea benetan zer zen: ez nintzen bakarra, ez nintzen zomorro arraroren bat eta munduan ez nengoen bakarrik. Izan ere, *giro*ko tabernetan hamaikatxo gizon ezagutuak nituen, baina ezin nuen neure burua haien moduko ikusi. EHGAMen berriz, beste giro bat ezagutu nuen, gay izateko beste modu bat, ni nintzenarekin eta

sentitzen nuenarekin ondo egokitzen zena. Astean behin elkartzen ginen. Hasiera batean EHGAMek *Olimpia* zinematik gertu, Iparragirre kalean, zeukan egoitzan biltzen ginen. *Txoko Landan* beranduago helduko zen, 1981 urtean. EHGAM ez zen bakarrik lan edo borroka egiteko cunea, bazen baita ere, nire moduko gizonak ezagutzeko toki aproposa.

Gay mugimenduan egindako lana bezain garrantzitsua izan zen niretzat, EMK alderdian egindako borroka politikoa. Alderdian guztiek zeukaten nire militantzia bikoitzaren berri eta beti pentsatu izan dut alderdikideek eman zidaten babesa erabatekoa izan zela. Urteak eman nituen EMKn, baita gero Zutik alderdian ere, LKIko jendearekin batu ginenean. Azkenean alderdia utzi egin nuen, baina ez gay edo EHGAMkide nintzelako. Borroka politikoa bizitzako aro bat izan zen niretzat eta amaitu zenean, amaitu egin zen, besterik gabe.

Ezkontzak lotu egiten gaitu

Azken hamarkadetan ezagutu ditugun aldaketak izugarriak izan dira. Izugarriak kalean eta are izugarriagoak arlo juridikoan. Alde horretatik oso baikorra naiz. Hori esanda, hala ere, zera gaineratu behar dut: ezkontza eskubidearen inguruan zalantza ugari dauzkat. Ez ezkontza legeztatzearen kontra nagoelako, hori ez; ezkontzaren beraren kontra nagoelako baizik. Pentsatzen dut ezkontzea lotzea dela. 70 urteko lagunek ezkondu egingo direla esaten didatenean, ez zait bidezkoa iruditzen. Eta badakit bikotelagunari ondasunak eta pentsioa uzteko ezkontzen direla bakarrik. Eta hala ere, ez zait bidezko iruditzen. Pentsatzen dut gure bikotelagunak babesteko beste moduren bat egon beharko lukeela, ezkontzera behartuta egon barik. Ez bakarrik gay eta lesbianen artean, baita bikote heterosexualen artean ere. Ez zait bidezko iruditzen pentsatzen dudalako ezkontzarekin bere harremana arautu nahi ez duten guztiak diskriminatu egiten ditugula. Horregatik diot giza harremanetan aurrerapena izan daiteekela ezkontzea, baina era berean badela kontrol sozialerako bitartekoa ere.

Bukatzeko esango dut gaur egungo gazteei ez diedala batere inbidiarik. Egia da tokatu zitzaizkigun garaiak latzak izan zirela, neurri askotan. Baina ez naiz damu. Ezjakina izango nintzen beharbada, baina nik oso-oso ondo pasatu nuen eta ezin dut besterik esan. Zugarramurdin haurtzaro zoriontsua izan nuen, eta gero Bilbon ere bai. Zoriontsu izateko ez genuen askorik behar eta, alde horretatik behinik behin, gaurko gazteak baino hobeto bizi ginela pentsatzen dut.

Gipuzkoan, 2015eko azaroan